

zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

UNIBERTSITARIAK LANEAN ARI

Sei lanetatik bost euskal gaiez

Talde koskorrak osatzen dituztela, nahi hainbat lekutan sakabanaturik ditugu gure unibertsitariak, eta maiz aski elkarren berri gehiegi jakin gabe. Honek lanaren banaketa eta sakontasuna galerazten du. Gu geure aldetik berri emateko eginkizuna bete nahiz batzuegana hurbildu gara.

Joan den uztailaren hasieran azterketak izan ziren Bilbaoko Deustun. Filosofia eta Letrazko Romanikak sailean berrogeita hamarren bat lagun presentatu ziren karrera buruzeko asmoz. Tartean Donostiako EUTGen ikasi duten sei lagun ziren: Arantza Garayalde donostiarra, Mari Karmen Garmendia ormaiztegiarra, Loli Arrieta, donostiarra hau ere, Jexux Arzamendi mondragoetarra, Andres Otermin Leitzekoa, eta Juan Antonio Letamendia, donostiarra. Oporra edo soldaduska direla eta, ezin izan ditugu denak bildu, halaz ere, pare bat aurkitu dugu zenbait argitasun emateko prest.

—Gogorra izan ahal da lizentziaturako azterketa heri?

—Bai eta ez. Karrera osoa pasa duenarentzat gai ezagunak ziren, linguistika eta literaturazkoak. Hala ere larritasuna ez da faltatu behin baino gehiagotan, motza baitzen denbora behar genuen gutzia erantzuteko. Alde batetik lan teoriko batzuek egin behar ziren idatziz, ondoren testu zahar eta berrien azterketa; azkenean tesina edo memoria delakoaren defentsa.

—Zertaz izan dira lan horiek?

—Gaia nork berea hautatzen du, eta aurrera eramateko irakasle baten zuzendaritza behar izaten da. Arantzak Euskal herriko ipui zaharren egiturak aztertu ditu, Mari Karmenek Lizarraga Elkanokoaren aditz laguntzailea, eta Loli Clarin-en *La Regenta* Goldmann-en teoriak. Mutilek Axularren *Geroren* zenbait alderdi miatu dute: Andreak bere prosaren ritmoa, Jexuxek baldintzazko esaldiak, eta Juan Antoniok latin-euskarazko kidetasunak.

—Hortaz, sei lanetatik bost euskal gaiez izan dira...

—Proporzio honek ez gintuzke harritu behar; normala behar litzake hemen.

—Berrogeita hamar omen zintzen Bilbotarren artean ba ahal zen honelako gairik eraman duenik?

—Gezurra badirudi ere, ez, topiniazko bi kenduz gero. Hori da

harrigarria, ez gurea. Saiatuko ahal dira ondorengoetan!

—Zuen lanotan erabakirik atera ahal duzue?

—Konklusioak ez dira gauetik goizera sortzen. Lan bakoitzaren bukaeran bildu ditugu geure iritzia, baina askotan susmoak eta lehen hurbiltzeak besterik ez direla. Maiz askotan ez da guti aurretik guti gora behera esandakoa dato garbiz frogatzea, edota ilunak salatzea ikerbide berriak proposatuz.

—Romanikak ikasi dituzue. Nola-ko aukerak izan dituzue ikasketak horietan euskal gaiez iharduteko?

—Halabeharrez, gureak ez diren urretan egokitu zaigu igeri egitea. Karrera zehar, besteak beste, Per Abbat-en grafiak, leonesaren palatalizazioak eta rumanoaren kontsonantismoa ikasi behar izan ditugu; hau ondo baino hobeto etorri zaigu, baina gurearen hutsunea nabaitzen genuen ikasle-irakasleok kanpotik ezartzen zitzaigun programan. Linguistika eta literaturazko ikaspi-deak egiteko lanabesak eman dizkigute; gu geroz baratzan erabiltzen saiatu gara. Euskarazko klaseak bi kursotan izan ditugu.

—Unibertsitariok ilargian bizitzeko fama duzue, herriagandik aparte... Zenbatetaraino erantzuten diote zuen lanok gure kulturaren bizi beharri?

—Fama hori ez dugu merituak gabe irabazi. Dena den, Axularren kondizionalak edo Lizarragaren adi-



Zutik: Letamendia - Garmendia - Arrieta - Garayalde
Makurturik: Otermin eta Arzamendi

tza aztertzeari bitxikeria irizten diolarri gure atzerapenaren zergatikoa bilatzeko eskatuko genioke. Literatura egiten dugulakoan, autore batengatik oso «aberatsa» eta «bikaina» dela esatea, noiz jaio den eta beraren titulu batzuek emanda konforme gelditzea, nahiko pobrea da. Horrela ez goaz inora. Zientziako oinarri sendorik izango bada lan monografikoak, lehorrak izanagatik, behar ditugu lehenik: dato zehatzak antzinakoetatik eta herriaren ahotik jasoak.

—Nolako giroa sumatu zenuten epai mahaikoan aldetik?

—Tribunalean, romanistak izaki, inork ez zekien euskaraz, horregatik ezer guti esan zezaketen, metodologiakoez izan ezik. Beldur zen gure arteko norbait. Baina azterketa hauek legezko titulua ateratzeko zirenez gero unibertsidade ofizialaren ordezkariak behar zuten. Zorionez, ordezkari eta mahaikoan buru gailego bat etorri zen. Lorenzo Vazquez jauna biziki ongi portatu zen gurekin. Zinetako gogoz

eskatu zituen gure lanok berak zuzenik ikusteko eta aztertze. Defentsa bakoitza bukatutakoan gogor ekiten zion honelako lanen egin behar larria adieraziz. Tarteka Galizian bertan gertatutako zenbait gora behera ere salatu zuen bortizki. Pozeko ikarak astintzen gintuen hitz haiek entzutean. Tesina presentatzeko ere euskaldunoi besteei baino denbora luzeagoa eskaini zitzaigun. Amaitzeko, sarri aipatu genuen hauza baitzen, hizkuntzaren batasuna ezin utzizko bezala gomendatu zigun.

—Nolako irtenbideak ikusten dituzue romanikak egin dituztenentzat?

—Irakaskintza eta inestigazioa. Ederrena biok uztartzea litzake. Irakasten behinik behin seirok ariko gara. Ikastola eta lizeoetan batkapat. Erdal institutuak ere ahaztu-zeak ez ote ditugu... kanpotarren eskuetan gehiegi utziak. Bada hor ere egitekorik franko. Baten bat unibertsidade mailan ere ihardutekoa da.

—Beste esan beharrik bukatzeko?

—Gure esker ona agertu nahi genieke lan hauek egiten borondate osoz lagundu diguten Goenaga, Altuna eta Lasagabaster irakasleei, gainerakoak ahaztu gabe... Era berean jarrai dezatela ondorengoekin eskatzen diegu.

—oOo—

Gazterian gehienek teknika aldera jotzen dutelarik, irakasle premia handia sumatzen dugu ondorioz. Milaka ume dabilta ikastolatan, hezitzaileak, ordea, urri ditugu. Gazte hauek eman duten pausoa ikusirik pentsa dezatela beste askok nondik jo goi-mailako ikasketak erabakotzerakoan. Dei egiten diegu batxillerrean ari diren neska-mutilei berziki.

ERRIALDE

Euskal Kirolak

ARRIJASOTZEA

INDARRAREN ARBO- KERIA

Nork ez dio eldu bideondoan edo etxeondoan ikusi duen arri konkorrari? Badu euskaldunak bere indarrak probatzeko grina. "Arteondok" arriak plazaratu zituen arte ez guxi dakigu arrijasotzearen lege, neurri eta markez. Baina zalantzarik gabe oso antzinatik du euskaldunak era ontan bere indarrak neur-tze joera. Aukera ona ematen zion ortarako erreka urak bo-robitzen eta leuntzen zituen arriak.

Bestalde argin eta arrobi asko zen aspaldidanik Euskal Errian. Escoriala bera ere euskal argiñek landuriko arlanduz egina da ia erabat. Arrobiak jende indartsua eskatzen du. Gure aurrekoak behin baino gehiagotan jardungo ziren lanak bukatutakoan landutako arriren bat jasoaz beren indarrak neur-tzen. "Felipe II eta Escorial"az idatzirik dagoen liburuan euskaldunen aizkora jokoan, bola jokoan eta arrijasotzearen berri ematen zaigu:

Euskaldunak indarraren ar-rokeria daraba. Ez du uste euskalduna baino indartsuagorik di-tekeenik. Ipui asko dago ontaz. D. Joxe Miel Barandiaranek di-nez Sanson edo Roldan edo jentilen batek urrutira botatako arri kankar asko azaltzen da mendietan. Sekulako arri kan-karrak edo arrika botetak edo bizkarrera indartsuren batek ja-soak, askotan azaltzen zaizkigu ipuietan.

ARRIJASOTZAILEAK PLAZARA

Arrijasotzeak plazaratu ziren

arte ez zen neurri eta molde ja-kineko arririk erabiltzen. Amez-
ketako "Albizuri-aundiko" arria izan zen urtetan amezketarren indarrak neurtu zituena.

Baina plazan jokoak egiten asi bezain azkar lau eratako arriak erabiltzen asi ziren: zilindroak, kubikoak, borobilak eta kuadrokoak.

Zilindroa eta borobila dira pi-surik txikienekoak: zortzi, be-
deratzi eta hamar arroakoak izan ohi ziren. Kubikoa eta kuadro-
koa izan ohi ziren aundienak. Amar arroatik gorakoak.

Ez da erraz nork markarik onena egiten duen jakitea, ez bait dira arriaren neurriak eta moldeak beti berdinak izaten. Gaur lehen baino eskurago jar-tzen dira arriak elduleku eta alderoz.

Lehenengo jokoetan erabili zen arrik aundiena emezortzi arroatakoa da. Bedaioko Erra-mun Jauregiak jaso zuen 1957-garrengo apirilaren 22an Tolo-sako zezenplazan. Baina ez zuen aurrez-aurre jaso, atzetik, biz-karrez, baizik. "Arteondo" ere saiatu omen zen Azpeitiko ze-zenplazan 260 kiloko arria jaso-tzen. Luzean bi metro zituen zilindrikoa omen zen, baina egi-
ten zizkion alderoengatik edo ez omen zuen jaso.

Kargarik txikienekoa, berriz, Orioko Inaxio Iburguren eta Ge-tariako Inaxio Albedik erabili zuten. Berrogeita hamar kiloko zilindrikoakin jokatu zuten Za-rauzko pelotalekuan. Orduer-dian 431 aldiz jaso zuen Orioa-rrak, txapeldun geratuz. Marka ori ondu baitetz, 13 kiloko ga-lleta kajarekin jokatu zuen 1958rrengo maiatzaren 2an Za-rauzko "Lankaster" kazetariak.

Orduerdian 543 aldiz jaso zuen.

Pisu berdinean zilindrikoa da jasotzeko errazena. Zailena, be-
rriz, borobila. Arrijasotzaile onak bakarrik erabili dute bo-
robila maixukiro: Usola, Itsa-sakorta, Errekartetxo, Justo Ga-llastegi, Soarte, Agerre I, Man-terola, Urtain eta Endañetak.

Arria zenbat eta aldrebesagoa orduan eta zailagoa da jasotze-ko. Errekartetxok jaso zuen 72 urterekin inork jaso gabe egon zen Amezketako "Albizuri-aun-di" arria. 170 kiloko arri baldar bat da.

Arrijasotzaileek ez dute biek batera jokatu ohi, txandatu baizik. Amarna minututako iru-na ekinaldi egin ohi dituzte.

ARTEONDO ETA ARITZA

"Arteondo" arte ez zen arri jokorik plazan egin. Etxeatarian edo arrobiñan egiten ziren. Onak baztertu zituen arri baldarrak eta arlanduen ohitura sartu zuen.

Bitor Zabala, "Arteondo", Itziarren jaio zen 1886rrengo urtean. 1910 asi zen bere inda-rrak erakusten. Gorputzez mo-tzantzekoa eta besaluzea zen. Aukera aukerakoa arria jaso-tzeko.

Txapeldun egon zen 1925ean Aritzak autsi arte. Bitartean Do-mingo Unamuno, Franzisko So-rarrain, Juan Manuel Goikoe-txea, Juan Joxe Egaña eta bes-te gazte asko autsi zituen. Iru-rogeita bi urterekin ere plazan zebilen arriekin borrokan.

Pedro Maria Txurruka, "Ari-tza", Motrikon jaio zen 1894-rrean. Plazetan 1918an asi zen. Baina laster gailendu zen jasotzaile indartsu eta on be-zala.



Pedro Maria Txurruka «Aritza»

Eibarko zezenplazan jokatu zion "Arteondori" 1925garren martxoaren 15ean. Iru mila ikus-le izango omen ziren jokoa ikus-tera sartuak. Amarna minutu-tako bi txandatan jokatu zuten amabost arroako retanguiarra-
rekin. Ona markak:

Aritza	Arteondo
12 jasoaldi	9 jasoaldi
9 jasoaldi	4 jasoaldi

Guztira 21 jasoaldi 13 jasoaldi

Arteondo ez zen lasai geratu eta berriro andik urtebetera jo-katu zion amar arrokoarekin. "Arteondo" gelditu zen irabazle. Bolada batean biek lan ortan jarraitu zuten erriz erri Biz-kaian eta Gipuzkoan.

LAPATX

ARGIA

Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragol-
ko Kaputxinoak argitaratua
(Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-
Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korroo batasune- tako errietan	350 pezeta
Atzerrietako bes- te errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez gal- detu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

Irakola:

«Gráficas Navasal»
A, Adoain, 1 IRUIREA
D. L.: NA. 80-1963

ERAMAN - EKARRI-
reko

AGENCIA

Transportes A L E

EUSKAL IRRATSAIOAK

ERRI GUZTIKAKO

Urrutizkiñak: 421969 - 427728

Iparaguirra, 8 - DONOSTIA

MUEBLES URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIKAK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS. 46

GAZTEIZ (Vitoria)

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EBARI GUZTIETATIK

Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkiña: 41 20 65

DONOSTIA

BAR - RESTAURANTE

AURRERA

HAUXE DUZU ZURE JATETXEA


Urbietan, 12

Urrut.: 411528 - 412578

— DONOSTIAN —

JOSTUNDEGIA

MODISTEGIA



Urbietan, 66

DONOSTIA

ASATE OPARIAK

GAI TA IRUDI POLITENAK

Victor Pradera, 2
(Esquina Zubieta)

DONOSTI



bazkari onaren zarpagarria
eta txarraren estalgarria

LA CASA DEL CAFE

Juan Iriondo

San Marzial 14 - V. 4113801
Donostia

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK

URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak:

Etxekoa 65 19 60

Landolakoa 65 19 33

URRETXUA

Urrutizkiñak:

Landolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumaleakarregi, 7ºn

Kontu emen!

Euki gogoan!

Adiskide ta etrekojaunok!

Zuen enmasteentzako esku-erakutsirik onnea. Zuen sukalderako apaingarri

Eitze azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta prejitzeko aukerakoa

SUPERCACEROLA A PRESION «RADAR»

Juegos Espátulas y juego Cubierto «RADAR»

«ANTEGIA - INDUSTRIAS RADAR» ESKORIATZA (Gipuzkoa)

ZARBLAN LANTEGIAK

Era guztietako konponketak: txapa, mekaniko
pinturak, argindarra, etc.
SERVO FRENO-ren ezarketa azkar eta ekonomikoak.
Garabi edo grua zerbitsuak.
Bezero edo adiskidei jai zoriotsuak ZARBLAN-ek
ospa die.

Karretera Jeneralean

Urrutizkiña: 36 15 20

— LASARTE —

OPORRAK

Udan gaude ez badirudi ere. Eta udak oporrak dakazkigu gogora. Ezin konta ahala ikasleren oporrak.

Baina ez dugu ikasle eta irakasleen opor hoietaz mintzatu nahi. Laburxeagoak dituzten langileenaz baizik. Legez behintzat baditu langile jandek ere bere jaiak.

Zer egin jai duten ordu, egun eta asteetan?

Astakeria dirudi jendeak bizitzeko orduak sartu behar dituen tokian hori galdetzea. Banaka batzuk bakarrik dira zortzi orduko lanaz bizi ditezkeenak.

"Zoaz halako mendira, halako itsasora, halako ostatura". "Ez zaitez halako edo holako leku zoragarria ikusi gabe gera". Hone-lako deiak egiten zaizkio jendeari telebistatik eta irratitik.

Badirudi mundu guztiak baduela nahiko diru eta beta nahi duen tokira joateko eta nahi duen guztia egiteko. Hala dirudi jendea xaxatzen eta zirikatzen ari diren tresnei begiratzuz gero.

Baina ez da hala. Jendeak ordu asko sartu behar izaten ditu lanean, bizi ahal izateko. Eta zortzi ordu lan egiten dituen lan-tegian ordu gehiagorako lanik ez badago beste lan-tegi batera doa lan bila.

Pezeta indartsu egonarren ere ez dirudi arazo honek oraingoz konponketarik duenik. Izan ere premia berriak sorrarazten dizkie jendeari irriti, telebista eta egunerokoek. Propagandaren amuan erortzen da jendea nahitaez.

Bestalde etengabe garestitzen ari dira bizitzeko behar diren gauzak. Besteak beste gasolinak erretzen ditu gure patrikako diru pitxarrak. Petroleoak omen ditu erru guztiak. Hori garestitu omen da. Zenbat? Inork ez daki. Guztitara ere lau txakur txiki? Dena den gasolina behintzat litroko ogei txakur txiki garestitu da, hots, pezeta potzolo bat. Zorionekoak oporrak eta ibiliak garestitu aurretik egin dituztenak! Eta eskerrak "alcoholometro" salata-riari! Horri eskerrak zurrutean aurreratuz ahal izango bait du zenbaitek.

Halere denon barruan dago opor egarria. Eta denok ditugu beharrezkoak jai batzuk. Zertarako ordea?

Jende mota askok eta era askotara aztertu du galdera hau. Zer egin jai ditugun ordu, egun edo aste hoietan?

Batzuek diotenez nekaturik dagoen gizonak atsedena ar dezan dauke jarriak. Beste zenbaitek dioenez gizona tresna bat bihurturik dago. Gizonak ez du lan-tegian ezer asmatzeko eta sortzeko egokierarik. Dena makinak egiten du eta beregisa gainera. Golde arrastean dabilen idiaren antzera dabilen gizona ere makinaren hildoa. Hauen iritziz gizonak jai egunetan nork berak sortu behar dituen lanak egin beharko lituzke. Gizonak gizon izango bada sortzaile izan behar bait du.

Beste askorentzat gizonak bere burua eta bihotza landu beharko lituzke, adimendun eta nahimendun bait da. Hortarako izpiritu alderdia landu beharko luke bereziki egun hoietan. Kultura arloan eta gizarte eta familiako arremetan murgildu beharko luke.

Badu bai gizonak oporren beharra. Baina ez propagandaren txixtuz lituraturik zenbaiten interesen zurrumbilo zoroan dantza ahal izateko.

Badu gizonak indarberritu beharra, sortzaile dohaia landu beharra, bere buruaren jabe izan beharra, pentsatzeko eta maitatzeko astiaren beharra. Bestela lanerako tresna eta abere bihurturik geratuko da.

ON KOSME ZIGORTUA

Aurrerantz gauza aundirik egiteko gauza ez dena, atzera begiratu bizi bear. Zer arraio egin zezakean On Kosmek, gaixorik oeari lotuta egon zan negu luze artan? Gizona orren txatxu eta ñafiu biurtu ditekian! Bost edo sei aldiz termometroari begiratu, zenbaterainokoa zen bere sukarra jakiteko. Berrogeiren bat aldiz bere biotz arlotearen taupadak (pulsazioak) neurtu. Porru-patata auek zozoak daude. Ez dut nai mermeladarik, gozaren gozoa geiegikoa duteta. Ezin dut lorik egin. Kaskarrean min dut...

ONA EMEN GIZONA. Au aal duk gizon kementsu eta bulartsu ura? Auxe bera erriz-erri ibilli oi zan Sermoilari bizartsua? Noraino jautsi aiz, On Kosme? Nolatan oinbesteraño oillotu eta kokildu? Il aiz gaur eguneko mundurako. Zer egin-kizun latz jarri, ume koskor biurturik dagoen On Kosmeren eskue-tan?

Minketa aundirik ez eta, badu naiko asti bere pentsamentuetan murgiltzeko; orain arte ies egindako bere bizitzari begira jartzen da: Ez duk, ba, Kos, me, mirakulu aundirik egin. Askil arlotea izan duk ire bizitza.

Arlotea, bai, baiña alai, dio berrekiko. Eta beti bezela, ezta baidaka asi da On Kosme bere buruaz.

—Giro gozoa, pozgarria, atsegina izan oi zan beti nere alboan. Amaika algara zoro sortu oi nuen nere inguruan. Pozik oi ziran, bai, nere lagunak. Ingurukoak alaitu eta poztea, ez ote egitazko Ebanjelioa?

—Ebanjelioa? Ez beti. Adar-jotzaille dotorea intzan, bai. Besteen bizkar par geiegitxo egiñak zerate Apaiztegia.

—Ori txandaka izan oi da eta lagun arteko zorakeriak bearrezkoak dira eta ez aintzat artzekoak. Gaiñera, "Zenbait atsekabeteri poza eman oi nien teatroan, par-eragille komiko nere burua biurtzen nuanen. Teatroan egin oi nituen zorakeriei esker, algara ederrean, pum-paka zilborra gora eta beera erabili oi zuten, bai, ikasleek ez ezik, gure Maisu eta Eitzalaleek ere.

—Ago ixillik; Teatroa, diok; Aaztu zaik Eduardo, Burgosko Ikasle lagun egin egin iena? Gaztelako mutil

arrek lotsa gorriak pasa bear izan zizkian. Ire adar jotze ura, ez uen izan gutziz alai Burgostar errukarri arentzat.

Oroitzen da, ongi alaere, gure On Kosme gertakizun artaz. Ura ziria sartu zion eskola-lagun zuen Eduardori.

Arro xamarra zan Eduardo. Besteek baiño argiagotzat jotzen zuen bere burua. Erdal literaturari eman zion eta nereko illargian bizi zan. Zuek ez dakizue ezer; Teatroan par eragille komiko bezela agertzen duk Kosme. Guztiok oker zaudete. Jardun nauk Kosmeren nortasun eta izaera ikasten, eta garbi ikusi diat trajikoa dala. Beldur eta izura emateko paperak zetozkiok on gien Kosmeri. Psikoloji aldetik nor dan begiratu Kosmeri eta urte oso bat igaro diat beretzat, aparteko antzerki trajikoa egiten. Kosme Pallasua bukatu duk, mutilok, nik bere antzerkiarekin sortuko diat Kosme Trajikoa. El Criminal de Corcega izenaz egin zuen antzerki trajikoa Eduardok. Kriminal-Gaizkille ori Kosme zan. Eginkizun polita berea: Gizonak il, zakuan sar eta errekarra bota. Ura zan, bai, antzerki beldur-garria. Bere aurreko guziak izututa dardarka utzi bear zituen Kosmek. Agur Kosme Komikoa; Beste Kosme bat sortu bear zuen egun artan: KOSME TRAJIKOA.

Bai, bai, toki onean. Irri eta parrizko komeri batean biurtu ez zuan bada Kosmek Eduardoren Trajedi beltza! Gizona antzokian garbitu eta zakuan sartzen zuen bakoitzean, algara biziak sortzen zituen bere ikusleetan. Bere imintzio, mugimendu eta antzokian ibiltzeko erak parragarrietakoak ziran. Eduardoren sua! Bere aserrea ez zen nolanaikoa. Berari ainbat kostatako lan aundia, bat batean alferrik galdua. Jendeak parre egingo zion eta Kosme, patxada ederrean, kezka aundirik gabe geldituko zitzaion. Orduetik aurrera Eduardoren arratoi-begiak ez zituen so egin Kosmeren arpegi ederrari. Eskerrak, garai artako pekatuak seigarrengoak zirala batez ere.

Eduardok gora jo zuen. On Jose Joakinen aurrean salaketa aundia egin zuen Kosmeren aurka. Gizon on eta komprensio aundikoa zen

On Jose Joakin. Bere aurrean antxe dago Kosme pekataria. Ez dirudi damu aundirik duenik. Arek asi du bere sermoitxoak: Itxusikeria bat egin ziola bere lagun bati... Lotsagarri utzi zuela denen aurrean. Literatura lanetarako gogoak kenduko zizkiola bere jokabide gaiztoaz. Pallaso eta Komiko uts ezin zitekeala izan bizitzan...

—Oar tiki bat, On Jose Joakin, diotsa Kosmek: Begi zearka batean, ikusi zintudan gero barrezka gozoki gizona il eta zakuan sartzen nuen bakoitzean...

Ago ixillik eta oa emendik, parreri eutsi eziniñik, esan dio On Jose Joakinek. Ez itzak aaztu ordea ire bizitza osoan gaurko nere itzak: Kosme, Kosme, LAGUNAK IZANGO DITUK INGURUAN PARRE ERAGINARAZTEN DIEAN BITARTEAN; GERO, BAKARRIK UTZIKO AUTE.

Kosmeren erantzuna bat batekoa izan zan: «Ez zaitez orren trajikoa izan; erremedioa eskuan dut: Bizi naizen bitartean par eginerazten jarraituko dut eta sekula santan nere burua ez dut bakarrik ikusiko».

—oOo—

Orduetik ona urte asko igaro da. On Jose Joakinen itz aiek bere barnean eraman-ditu On Kosmek: BAKARRIK UTZIKO AUTE. Biotz alai beti izaten aalegindu da bere bizitza osoan. Izpiritu gazteari eusteko, bera baiño adiskide gazteagoak maite izan ditu. Bera baiño zaarra-goentzat erukia bai, lagundu ere bai. Maitatu ere bai. Baiña... ONA EMEN KOSMEREN PEKATUA: Bera baiño zaaragoekin adiskidetasun aundirik ez du izan. Solaserako eta algaraz par egiteko, gazteekin oi zuen bere adiskidetasuna. Izan ere geienetan beintzat aspergarri da zaararen izketa: Erreuma, ezurreta-ko desgaita, biotza olako sendagile ona. Petrikillo obeagoa. Pildoritatek mirariak... El Brujok aundiagoak... O... O... O... beti guza berdiñak entzuten, Denbora luzean ezin ba egon orrelako solasak entzuten. Gazteen solasak bestelakoak ziran: Alaiagoak, atseginaoak, bizi poza ematen zutenak. Pentsaeraz aurrerakoiak. Aurrera begiratzuten zutenak. Ameslariak. Guzia eraberritu nai zutenak: Eliza, Erria. Zer ez? Ta parreri ematen zitotenean? Aiek txiste politikak: Urdiñak, oriak, txuriak, eta... Berdeak ere bai.

Bai, bai, bere kideko eta zaaragoekin baiño bizitza alaiagoa zera-makien On Kosmek bere adiskide gazteekin.

—oOo—

KOSME? KOSME, LAGUNAK IZANGO DITUK IRE INGURUAN PAR ERAGINARAZTEN DIEAN BITARTEAN. GERO BAKARRIK UTZIKO AUTE.

On Jose Joakinen itz aiek takataki biotza kolpatzen diote On Kosmeri. Egia ote den pentsatzen jarri da. Jainkoak zigorra bidali dirudi. I baiño zaaragoekin ez duk adiskidetasun aundirik euki. Aspergarri zitzaizkion, Kosme, aien gaiko solasak eta jardunak. Eta gaur? Zaartu baiño leenago gaitzak jo au. Buru gaiñetik eta anka punta bitartean gaitzak jo gabeko zatirik ba ote duk, Kosme? Burua soilla. Illeak zuri. Ezkerreko belarria go-gortua. Ortz ustelak. Birrikak nola alakoak, biotza pipiak jota. Gulturdinak. Urdailla. Zer ez aberiatua? Batzuetan lumbago. Besteetan erreuma.

On Kosme gizaajoak, leengo umore ederra galdu du. Bere izketa-solasak pipia jota dagoan agurearenak dira: Bere biotzeko taka taka pulsazioak... pildorak... sendagile... reimenena...

—Sekulan maite ez zituen solasak, Kosmek orain darabilzki. Kosmeri osasuntsu zegoanean, aspergarri zitzaizkion orrelako berrieketak. Ta orain bereak, nork entzun bear ditu? Berak besterekin izan ez zuen errukia, bestek berarekin izango ote? Kosme gizaajoa, bete dituk iregan On Jose Joakin Profeta eta Igarlearean itzak: KOSME, KOSME, LAGUNAK IZANGO DITUK INGURUAN PAR ERAGINARAZTEN DIEAN BITARTEAN; GERO BAKARRIK UTZIKO AUTE.

ANTOLOGIEIEN SOLAIRUAN

Ez nuke inor ito nahi, baina horretara beharturik aurkitzen gara sarritan. «Metafisika egitera goaz, bainan metafisikaren hasiera bera faltsua da», idatzi zuen behin Ortega y Gasset-ek. Eta badirudi gaurko munduak poesia metafisikarekin nahasten duela, poesia metafisikatzat hartzen duela.

Pentsamendua, gizona itoko genuke.

Gaur gure munduan dugun gauzarik, pentsamendu-modurik biziena, gartsuena, poesia da. Eta poesiak metafisikaren gai berberak aztertzen baditu ese —Jainkoa, gizona, mundua...—, giro hunkigarri batean aztertzen ditu, gugandik hurbilen, bihotzeratuen dagoen une labur, sakonenean aztertzen.

Alferrik biziko zinake mundutik uruti.

Haiare, mundua muineratu beharko zenuke urteren buruan.

R. M. RILKE

Eskuetan darabiltzat egun hauetan Leon Felipe-ren «Antologia rota» eta Rainer Maria Rilke-ren «Antologia Poética» liburuak. Biak arras ezberdinak badira ere, biek zokoratu didate pentsamendu berdina. Ordu guttiren buruan edan dut haien odol guzia (?), eta beldur naiz. Eskuetan hartzen dudanean, urak behatzen arteko habietatik ihes giten duen bezala, ihes egiten dute antologia hauetan bildutako olerkiek ere.

Leon Felipek dioenez, historiar zehar gerra guziak izan dira berdinak, errege guziak jantzi dira maltzurkeriaz, politika-mugimendu guziek isuri dute odola.

Pentsamendua —hitza— da ezberdina.

Teknika hauzietan gizonak ezer gutti egin bazuen ere, frigorik ez bagenu ere, nahiko lirake Horacio, eta Dante, eta Holderlin, eta Rilke, eta Leon Felipe, gizona ezberdin dela, bat eta bakar dela, esperientzi bitxi, orijinal, aurrerakoi dela, historia aurrera doala konturatzeko.

Pentsamendua bizitzari hurbil bizi denean bakarrik da pentsamendu. Teoria eta prasia, aingeruek pipizik bai ala ez, ojetibitatearen oinarriak... Hel dizaiogun bizitzari, arraioa!, eta Rilke-rekin batera «Bizi egin behar da bizitza» esan.



Mahats-zainak mahastian bere txabola bat duen bezala, zure esku zuloko txabola naiz, [Jauna] zure gauaren gau.

Rainer Maria Rilke

Baina —eta aii!— ze pena, gizonaren eboluzioa, bere ideien eboluzio aberatsa antologia zikineta eda-ten dugunean. Eta zikin idatzi dut.

Telebistako programa bat aukeratzera behartzen gaituen bezala behartzen gaituzte zenbait ideia edatera. Antxoa freskoa jan ezin duenak, latakia jan behar! Estandarizatutako antxoak jaten, estandarizatutako ideiak edaten ohituta gaudenoi kostatuko zaigu, kostatuko, bizitzaren une bakoitza, segundo bakoitzaren une bakoitza dela konturatzera.

Erreka baten ertzean —eta ez dut zikina dagoela esan beharrikbi haur ari dira jolasean. Gainean dute ama. Ez ote dira errekarra eroriko! Eta une inportante bat bizi dudala iduritzen zait.

Ideiak —baloreak— mugatu egin dizkigute, antologia, edo astalogia aspergarrien bidez. Gizon baten bizitza guzia, bere bizitzako mementuak kolpe batean, igande arratsalde astun batean edatera beharturik bagina bezala.

Uneak, mementuak bizi behar ditugu. Mementu bakoitzaren dehadarrak, pozak eta barealdiak.

«Bizi egin behar da bizitza».

Rilkek hau idatzi zuenean, bizitza nork bizi duen galdetzen zuen:

«Zu al zara bizitza, Jauna?»

Mementu guziak bizi dituenak bizi du bizitza. Bainan ai ze zalantza, mementu hoiek faltsuak diren ala egiazkoak ez dakienaren baitan! Eta orduan, Leon Felipek:

«Harri bat botako niake, Jainko.

Eta hire kopeta odolduko balitz,

negar eginen bahu,


orduante jakinen niake bahaizela».

Ongi da. Eta aski. Poesia ez da metafisika, bizitzaren azken muga baizik.

Eta negar egitera iritsiko banintz gure olerkari hoberean —Lizardi, Orixe...— odolak azal urretsu, apainetan ikusten ditudanean...! Liburu dotoreek, marketing aluaren Bilboko doktoreek, ito egin nahi dute gure pentsamendu arriskugarriena.

ANJEL LERTXUNDI

Arrestatzen Jaki



Tartean, posturatan hasiez gero, balez giputzek zuzentzen diguten hitz bakoitzeko, guk berek esan ohi duten beste horrenbeste salatu!

● Azkoitian, "Elisabet" jarri nahi izan zioten haur jaio berri bati orain dela urtebete. Ezetz, hori ez dela posible. Izena, Isabel omen.

Gure neskatila "Isabel" bataiatu zuten, baina errejistroko arduradunak idazkera ulergaitza, nonbait. Eta horra non, urtebetera, agiri guztietan ISABA. Amaika ikuste, joa ginen, bai!

"El Correo"ko idazlan hauk agertu eta bñaramunean, Migel Angel Astiz kazetariak erabat bestelakorik azaltzen zuen "La Gaceta del Norte" egunkarian. Izan ere, euskara nahiz erdaraz, pentsamolde batez zein bestez, iritzi bateko zein besteko, batzuk argiak dira eta beste batzuk ez hain beste.

Gizonok lau mailatan berezi ginduen arrazoiak nonbait, alegia: Argiak, iniziatibadun argiak, tontoak eta iniziatibadun tontoak. Azken hauk dira, jakina, "peligrosoenak".

IKASTOLA HIZTEGIA

Irakurlea oroi daitekeenez, Euskaltzaindiaren zuzendaritzapean jo eta ke lanean dihardu Donostiako batzorde batek Zortzi urte arteko ikastola hiztegia burutu asmoz.

Irakurleak dakikeenez ere —honetz zerbait baino gehiago esanak bait gara lehen ere—, zenbait erdal hitz zerrenda euskaltzain, jakintsu, irakasle eta laguntzaileen artean kanatu ohi da, hitz bakoitzeko nor bere itzulpen aukerakoena jar dezan. Iritzi guzti hoik Donostiako batzordeak bildu eta parekatu ondoren, beriz bidali ohi zaie laguntzaileei, azken zuzenketak egin ahal izateko. Azkenik, hitz zerrendak, beriz, batzordeak aztertzen ditu eta Euskaltzaindiari proposatzen zaizkie onar edo bazter ditzan.

Era honetan, lehen hiru izen zerrendak (339 hitz) onartuak ditugu duela zenbait hilabete. Orain, beriz, 4, 5 eta 6garren zerrendak Euskaltzaindiak ofizialki onartu berri ditu (217 hitz).

Laugarren zerrenda giza gorputzari, gaixoaldi eta medikuntzari dagokie. Bostgarrena jan-edan eta sukalgintzari. Seigarrena, azkenik, arropa, jantzi, jostun eta gainontze-koel.

BI LIBURU GAZTELANIAZ

"Añamendi" libururua sortak arestian eskaini digu Pilar de Cuadra idazlearen Pulso y Perfil de Guipúzcoa deritzan liburuxka. Abuztuaren lehen astean Bergara kaleko (Donostia) liburu denda batetan bere zenbait izenpetzen ihardun zuen gure idazle horrek.

Bide zuzenetik dakigunez, Pilar de Cuadren ustetan bere liburu horrek arrakasta handia izan du gazteen artean: "...ha causado impacto entre los jóvenes... como tiene mucho de protesta...". Hau da norberak esan eta norberak sinetsi!

Gure ustetan, Pilar de Cuadrak liburu honetan azaldu digun poesiagintza, eraz eta molde, "demodé" dago; berdin apaiz batek egin dion itzulpena, eta, funtsean, batzate, "Añamendi" sorta guztia.

Dena den, liburu honek izanen du (gustoak gusto) tokiarik "euskal liburutegi" batetan baino gehiagotan". Eta honela gabilta...

● Aulestiar bati esker eskura ahal izan dugu beste liburu berri bat, gaztelaniaz idatzia hau ere, baina arraz desberdina. Muerte en Murelaga. El contexto de la muerte en el País Vasco deritza honi, eta Renoko (USA) Unibersitatean Antropologia irakasle den William A. Douglass jakintsuak moldatua da.

Douglass jauna zenbait hilabetetan bizi izan zen Murelaga (Aulestia) 1965 eta 1966 urteetan, bertako heriotzaren zentzu, usuario eta portaera aztertuz eta ikertuz.

Aipatu gai honi atxikiz, liburu mardula benetan Barzelonako "Barral" Editorialak argitaratu eman diguna. Egundainoko ikerketa lana bildua bertan, eta liburuan barrena nabari da, Murelaga bizi denboraz egilea erabat jabetu zela gaiaren mamiaz, bai eta aulestiarren pentsakera eta bizitzaz ere, halaber bertako euskalkiaren berezitasunez.

Azken aldean, apendiz gisa, egilea euskal hiletan ohiak orokorre atxikitzen zaie, euskal autoreak (Barandiaran eta beste) inork bezain ondo ezagutzen dituela adiaraziz, eta esku artean darabilen gaiari buruzko bibliografia ugaria aipatuz.

VASCUENCE SIGLO XX

Bilbao "El Correo Español - El Pueblo Vasco" egunkariak El Vasuence en el Siglo XX izenburuko zenbait orrialde eskaini berri digu abuztuaren lehen. Euskaldunak garen aldetik lotsa gara ere horrelako emaitza triserik argitaratu emana ikustean.

Noski, irakurleak badaki jakin zein ahul den Bilbao egunkari hori euskara arloan, eta zer guti egin duen (ezer ez) euskararen alde. Kokodrilo-negarrari ekitea baino hobe luke sailtxo bat euskaraz eskaini. Dena den, urtean behin horrelako "special" bat eskaintzea komenigarriago zaio bere "linean" jarrai ahal izateko, edozein prezioztan nolabaiteko lehiatilatxo bat lortzeko zenbait ganorabako amor emateko prest dagoen artean.

Orrialde mordoak horrek Siglo XX "ponpoxua" merezi duenik ez zaigu iruditzen, agian hobeto litzateke 1.º Tercio Siglo XX, garai hura aspalditxo joan zela zenbait oharu ez bada ere.

Hauk honela, eta direnak direla, Kardaberaz Bazkunen Liburuak, Euskera Basico (Montiano), Alkartasun Zarrara, Alkartasun Berria, Barriona, Ebanjelio Alkartuak, Bible Saindua (Duvoin), eta Euskal Literatura (Onaindia) liburuak egungo euskal literaturaren fruitu hantatu bezala aurkezteak ez gaitu batere harritzen. Egunkari horren zuzendaria pozean poze egon daiteke bere egunkariak eman duen "lehen eskuko" informazioatik.

Azkenik, "naufrajix" honetatik Eusebio Erkiaga eta Jaime Kerexeta salba daitezke, horrelako orrialde sorta batetan lankide agertzen zaizkigun arren, gutienik beren gai eta jokerei serio eta zuhurki jarraitzen diete eta.

BAXENABARRETIK

Baxenabarreko Larzabaletik eskura ahal izan dugu Santos Beloki aita frantziskotarraren gutun bat, bai eta erantsirik bidaltzen digun Kantu Berrien Lehen Prima delakoaren araudia ere, ZENBAT GARA sail honetan agertaraz dezagun errekuarekin. Hona hemen, hitzez hitz, harakoa ahaudia, irakurleak hartaz jakin dezan alde batetatik, eta ipar aldeko euskara ezagutzen ere ahalgin dadin:

Duela lau urte hasi zuen Oztibarrek Euskal kantufestivala zelebratzen. Eta behar dugu erran haste hastetik arrakasta gaitza ukan zuela. Baina festival hori kantu zaharrendako bakarrik egina zen. Aurten aldiz, kantu zaharren zoin gehiagoka bazter utzi gabe, kanbiamentu inportante bat izango du Oztibarrek pestak, kantu berrien sariketa, alegia.

Hona primaketa edo sariketa hunen erreglamendua:

1) Primaketa hau egina da bi euskaldetako (Hego eta Ipar aldeko) euskaldun kantu egileentzat. Musika izan ditek batena eta hitzak beste batena.

2) Kantu berria... erran nahi dugu, oraino publikoan kantatua edo agertua izan ez dena. Edo ez bederen, publiko inportante baten aintzinean. Kantua, egileak berak edo bertze batek kantatzen ahal du.

3) Kantu gaia, bakotzak hauta dezala bere jitearen arabera. Ahalaz, Euskal Herriari eta euskaldungoari hobekienik doazkon betidaniko balioez kondua atxikit.

4) Kantu egileri galdegiten edo eskatzen diogu izenen emaitza iraila edo buruillaren lehenerako. Adreza huntarat:

OZTIBARRE BAT
Presbytère de Larceveau
64620 ST. JEAN PIED DE PORT

5) Kantuari balio handiago baten emaitzeko, oraiko kantatze moldeari jarraitzeko, eta denek eta bakotzak xantza berak izan ditzazten soinuarekin lagunduak izanen dira: Bateria, kitarra tronpeta, akordeon elektronikoak...

Soinulariek beren lana hobeki prepara dezaten, kantu berri egileek igor dezatela beren kantua ezarria magnetofoneko zinta batean, eta ahalaz musika izkiriok, berantenez irailaren 15-erako adreza huntarat:

Mr. Bernard HIRIGOYEN
"Galtxitaburia"
GAMARTHE
64620 SR. JEAN PIED DE PORT

6) Bi prima edo sari diferentak izanen dira iadanik kantu berriak egiteko usaia dutenendako eta lehen aldikotz egiten dutenendako. Sariak balio handikoak izanen dira. Baina jukete dute finkatuko kantua balioa ikusiz, musika eta hitzen balioa, interpretazioarena eta jendearen artean ukan duen arrakastarena.

JAKITEAK EZ DU KALTERIK

Ba ahal dakizu Urretxua, Zumarraga, Legazpia eta Ezkiogakoei "Otomotzak" esaten dietela?

● Ba ahal dakizu Eibarko Club Deportivo delakoan barrena "Natura-zaleak" izeneko elkarte berri bat sortzeko dela?

● Ba ahal dakizu Mallabiako idazlehiaketan parte hartu duten idazlan guztiak (hitz lauz zein bertsoz, nagusi nahiz ume) "h"z idatziak azaldu direla?

● Ba ahal dakizu Gipuzkoako % 71 basoa eta mendia dela.

● Ba ahal dakizu Gesalibarko Santa Agedan dauden gaixoen artean gehienak edanaren kalteagatik daudela?

● Obanosko "Misterioa" ospatzen ari garela (abuztuaren 20tik 27ra.), bertako Arnotegi Andra Mariaren izenak ez duela esan gura ARNO(ARDO)-TEGI, ARRANO-TEGI baizik?

● Aurtengoa txakolin urte ona (omen) delarik, ba ahal dakizu "Getariako" txakolina Errioxatik ekartzen dela?

AMATINO



BERRIAK

Daterren asteazkenean hasi eta irailaren 8ra arteko hamaika egunen buruan UDAKO EUSKAL UNIBERSIDATEA eratuko da Donibane Lohizunen.

Literatura, matematika, nekazaritza, antropologia, fisika, geografía, linguistika, pedagogía, konfairsa, ekonomia, edergintza eta gogoeta gaiak erabiliko dira, Euskal Herriko hgeiren bat jakintsu guztiz ezagunek azaldu eta aztertuak.

Egunero, igandean ezik, lau ikasaldi izanen dira; goizean hiru (9, 10 eta 11etan.) eta arratsaldean bat, iluntziko 9tan. Arratsaldeko tarte luzean, beriz, elkarrizketak eta irakasle-ikasle arteko harremanak egin ahal izanen dira.

● Elgoibarren P.M. Urruzuno izeneko irakaskintza kooperatiba bat sortu kerria da, legeak eskatzen dituen betekizun guztiskin. Kooperatiba honen lehen eta behinengo ardurak ikastola izanen da.

● Beste horrenbeste edo antzerako egin nahi da Zarautzen: Asmo ederrik bada. Ikastola guztiak bildu nahi da ikastetxe bakar batetan. Inurritzan (San Pelayo) ote? Sei miloik du erantzuna.

● Irailaren 3tik 13ra. arteko hamaika egunen buruan eratzeko da Bilbaon XXII Opera Jaialdiak, ohi denez ABAO delakoaren ardurapean.

● Irailaren 26an. eratzeko da Huarte Arakil deitu herrian urteroko Artzain Zakur Lehiaketa. Urtero bezala, Aralar Mendi Elkarteak eratu.

BERRI ZAMAITERMIN

Abuztuaren 5eko. alean Abadianoko Amaitermin hauzoaz edozein bat berri eman genuen; guk edo, hobeto esan, Jose Luis Lizundia eta Juan San Martin adiskideek. Harako ihardunak izan du geroztik ondorioz, bi albiste nahiko aipagarriak alegia:

● Lehena, guk besterik esan arren, Amaitermingo hauzo eskola ez dela gerra ondoren euskal izenez geratu den bakarra. Karrantzako hauzo eskolan (Bizkaiko azken herriari, Santander-ko mugan) oraindik orain euskarazko testuak irauten omen du.

Esaten genuenez, Amaitermingo euskal izena ez zen kendu, Abadianoko alkateak ere ez bide zekiela Amaitermin Abadiano zenik, eta ez Otxandiano.

Karrantzako hauzo ikastolaz ez dakigu, egia esan, zer pentsa. Agian, latina zelakoan edo...

● Beste berria Amaitermingo hauzo eskolari dagokio erabat: Jakin ahal izan dugunez, Guardia Civil delakoaren destakamendutzat bilakatu omen da... Hala eskatu zaio behintzat alkate jaunari, Otxandianoari eskatu ere!

Letreroak, guk uste, ez du antza askorik iraunen.

BITXIKERIAK

"Arriz" delako jaun batek (emakumea ez ote?) txotxolokeria mordo bat esaten ihardun du Donostiako egunkari batetako Tolosa herri sailean.

Horren jakintsu bada, eta zer esatekorik badu, esan beza Fernando Amezetarrak duela berrehun urte inguru esan bezalaxe:

NORK BERE HERRIAN
EGUNAZKO ARGIAN
EUSKAKA GARBIAN
JOKATU NAHI NIAN

● Euskaraz zerbait dakien batek egunkari berean esan duenez, ordea: "Marraskilloa, irakurle maiteok, karakolaren izena dezute euskeraz. Eibartar bati eziozu karakola entzungo... GAINONTZEAN ERDEL ITZ ASKO sartzen badiuzte ere, itz batzuk guk baino jatorrago dituzte eibartarrek".

Betiko leloa. Noiz oharu behar ote dugu, bakoitza bere euskalkian barna, ez dagoela euskara gaizki mintzo den herririk? Funtsean ohitura arazo da. Zenbait herririk hitz batzuk erabili ohi ditu erdaraz, bestek beste batzuk. Errurik gabek bota beza lehen harría.

Ezker berria nora gabe: Marcuse, berriz ere profeta

Euskal herri-mugimendua krisi batetan erori dela, edo bota dugula, dirudi. Eta European eta Amerikan ere, ezker berria orientazioa galdurik, nora gabe, estrategia berriren bat bururatu beharrean, aurkitzen da.

European eta Amerikan ezker berria sortarazi zuten faktore inportanteak bezala, agian laurok kontu litezke:

1. Mendebaleko ezker konpromiso gehiegik sareek harrapatu eta zahartu zegoela: hein handi batetan behintzat sistimak azpiraturik, eta teoria zaharrei atxikirik. Ezkerren gizarte-kritikak jadanik ez zuen gazte asko konbentzitzen. Halaber, gazteon ustez, ezkerren teoria sozialistak zaharkituta daude: gizarte moderno batetarako modelo sozialistak ez da erandik pentsatu, eta Alderdi (sozialista edo komunista) klasikoak modeloek ez dute gizarte aurreratu eta teknifikatu honetarako balio.

2. Desestalinizazioaz gero, batez ere eguzkialdean, ezker marxista klasikoaren (hau da, komunismoaren) gaitzak gero eta nabarmenago agertzen zirela. Gizartearen antolamendu sozial eta politikoa, batik-bat: langileen erakunde libre eta beregain denik ez dago. Sindikatik-edo. Alderdiak ere ez. Herri-eritzi librerik ez. Aginpidearen kontrolik ez herriaren esku. Laburki: aginpide autoritarioa eta gizartearen antolamendu burkikoa, burokraziak eta errepresioak hesiturik, bizitza sozial eta politikoa bezalaxe, produzio harremanetan.

3. Bestalde, komunistek sistema ekonomikorik efektiboena, azkarrena eta produzioren bezala gomenadaten zuten beren produzio-sistema: lortu dituzten aurrerapen industrial izugarriengatik harrotzen ziren. Plangintzaren arrazoizotasuna goraltzen zuten. Kapitalismoari "produzio-sistema irrazionala" zerriztatu, etab. Baina sistema sozialista sobietarraren produktotasunari ere geroz-eta aje eta akats gehiago agertu zaizkio. "Lehenengo industrializazioarako" modelo baliagarria badirudi ere, industria teknologikoaren faserako desbentajan ageri da, dirudienez.

Eta egiazki sistimarik produzioren izango balitz ere, ezker berria ez litzake horrekin bakarrik kontentatuko. Marxek eta Engelsek sistema sozialista kapitalista baino efektiboagoa izango zela itxadoten zuten: sistema zuzenagoa izango omen zelako, gizonen libre eta gustora lanegingo omen zutelako, ez lanaren antolaketa errepresioagoak efektibitate gehiago lor lezakeelako. Ezker berriak, Marxek bezala, lan efektiboagoa ez baina

"lan askatua" nahi du, eta produzio-efektibitatea ez du (izatekotan ere) askatasunaren ondorio bezala baizik onesten. Bestela faxistek ere arrazoi lukete.

Beraz, ezker berriak ez zedukan kapitalismoaren alternatiba antzean "modelo sobietarra" eskaintzerik. Une batez Cuba aipatzen zen: baina hau, dagoeneko, sobietarrek beren manupera bildurik dago. Orain, batzutan, Txina aipatzen da.

Ezker berria alde bietara zen kritikiko, horregatik: sistema biak kritikatu zituen, nola amerikanoa hala sobietarra. Eta hau biok zeuden, orobat, ezker berriaren kontra. Alderdi Komunista klasikoak ezker berriekin konforme ez egotea konprenigarri bazen ere, de facto ezker berriok Parisen, Berlinen, Tokion eta Washingtonen errebolta-tzen ziren: eta benetan harrigarri gertatzen zen, hortakoz, Alderdi Komunistak errebolta hurra aprobetxatzen ere ia batere ez saiatzea, berandu arte behintzat. Alderantziz, kapitalistekin batera ziharduten, ezker berria hondatzeko.

Inondik ere ezker berrien mugimendua ez zen Moskuren planetan ongi koadratzen: Moskuk mendebaleak baino ere garrazkiago eta intoleranteago erreazionatu zuten ezker berriaren kontra.

4. Ezker berriari zeragion laugarren faktorea Hirugarren Munduaren burruka zen. Bi blokeen arteko konfliktu gogorrenak Hirugarren Munduan lehertu dira. Baina dudagarria da, jadanik, mundu honetako antinomiarik gogorrena bi blokeen arteko ote den, eta ez herri aurreratuen eta atzeratuen arteko. Lur-globoaren iparraldeko nazio aurreratuak (USA/Canada, Europa, URSS, Japon) interes-batasun haundiagoa dute beren artean, globoaren hegoaldeko nazioekin edo Hirugarren Munduarekin baino. Hau da, beren interesen burrukak egin arren, hegoaldeari buruz interes komun asko dute, eta, interesok gidaturik, erraz elkar hartzen dute, beren komunitate interesaz zaintzeko.

Batez ere Ipar-Amerikan, baina European ere bai, Vietnamgo gudua izan da ezker berriari gehiena darragona. Eta esan liteke, arrunki, ia ezker berriaren ekintza guzirik Hirugarren Munduari begiratzen ziotela. Halabaina, Hirugarren Munduan ere, biziki nahasturik zegoen egoera: batetik, potentzia haundiek



«...gainerontzeko mundu guztiak hoi nahiaren obedientzi barruan ibili beharko du hemendik aurrera...»

geroz-eta gehiago errespetatzen zizuten batak bestearen interesak. Eta, bestetik, Hirugarren Munduan bertan estrategia ezberdinak zerramazitzen ziren: Alderdi Komunista klasikoak eta iraultzagile berriak (gerrileroak, tupamaroak, etab.) elkarrengandik urrunduta izanik, ezker berriak bigarren alde jartzen ziren.

Horiek supiztu zuten eta indartu zuten ezker berria. Beste faktore batzuk, 1) edozein ezkerren eragile arrunt dira, eta ez dago aipatu beharrik: mendebale kapitalistako gizarte biziera, adibidez, edo 2) leku-une mugatu batzuetako espezi-fikoak ziren: minorien problemak, esaterako (hala nola beltzak Amerikan, nazio-hauziak beste toki batzutan, etab.).

Ikusten denez, ezker berriak bi blokeen kontrariotasuna behar zuten bizitzeko eta gizarteari eragiteko. Konfliktuak behar zituen. Bien kontrariotasunaren erdian aurkitzen zuten leku eta orientazio. demokratikoa radikala batetik eta sozialista radikala bestetik. Joera ezberdinen konfliktuak behar zituen, batez ere, gizarte forma hauen gaitzuneak salatzen eta puntualki ikusarazteko. Konfliktu hauetan bi blokeek beste inola baino hobeto behartzen bait zuten batak bestea

desmaskaratzera eta beren interes gorritan biluzi agertzera.

Mundua, ordea, "dimensio bakanreko" gizartera doa bortizki. Haundien gaurko interesek, konfliktuak itotzera edo ahaztera daramazki. Adiskidetzera. Kapitalisten eta komunisten komunitate interes gero eta indartzenago eta berari da. Eta ezker berriak, orain artean zedukan orientazioa, galtzen du.

Zeren-eta orain arte gutienez interes diferenteen eta joera diferenteen, burruka moderatu bat baldin bazegoen, orain interes haiek bategingo dutela, eta mundu guziaz interes nagusi bakar haren mende lotu nahiko dela, bait dirudi: Sobiet Batasunaren eta USA-ren gaurko interes nagusia bion elkartasuna lortzea bada, gainerontzeko mundu guziaz —Hirugarren Munduak batez ere— interes horren obedientziaren barruan ibili beharko du hemendik aurrera. Zer egingo du Txinak? Horrek kezkatzen ditu bi haundiak batez ere Sobiet Batasuna.

Prozesu honi askok igarri baldin hazion, inork ez zuen Marcusek bezain ongi hauteman. Jadanik 1970eko kurko batzuetan salatu zuena, 1972-ko "Kontrairaultza eta errebolta" liburuan xehekiago aztertu di-

gu, ezker berriaren kritika zorrotz batekin batera.

Luzarora, Marcusek uste duenez, komunistak eta kapitalistak elkartasun politiko batetarantz doaz. Eta ezker berriak biek enbarazo bat ikusiko dute, beren "errealismoa" eta interes-koesistentzia oraingoz zematzerik ez badu ere, nekagarri eta higuigarri gerta daitekeena. Ezker berriak biak kontra edukiko ditu, eta bien kontra ihardun beharko du. Baina, batez ere, biek sortu nahi duten "konfliktu-rik gabeko" kontsumo-gizarte, edukiko du ezker berriak bere kontra: interes bat bakarreko gizarte.

Orain arteko asmo eta obligazioak utzi, iraultza asmoak nahiz demokraziaren begirunea (Watergate!), eta mundua interes baten inguruan "restaurazioari" ekitera doa: posizioak hobetu nahiak ez baina finkatu eta indartu nahiak agintzen du jadanik; aurreratu nahiak ez baina irmotu nahiak. Ez mundua demokratizatu, eta ez gizarteak irauli, nahi dute haundiek: gauzak dauden bezala utzi, ta aberastu, nahi dute bakarrik.

Munduaren gaurko status quo-ak bi haundien bedeinkazioa du.

JOXE AZURMENDI

ESTABLECIMIENTOS

ayestaran

DONOSTIA

FERRETERIA

BURNI - SALGAIK

Urbleta, 25

ELECTRODOMESTICOS

ETXERAKO ELEKTRO-TRESNAK

Urbleta, 27 - Isabel II, 2

RAILITE


LEGEZKO

ZABALTXAILLEA

Aldacona, 4

Urrutizkiñak:

44300 ta 426787



GIPUZKOA'KO NEKAZARITZA PIZTU ETA INDARTU

Gure ardurarik audienetako bat, Gipuzkoa'ko nekazaritza piztu eta indartzea da; era ontan, probintziko aberastasuna geitu egiten bai dugu. Gure laguntzakin:

- maisterrak bere baserria erosi dezake.
 - nekazaritzarako tresnak erosi.
 - abereentzat dituan ikulluak berritu.
 - kasta oneko beiak erosi.
- Gizarte atsegiñagoa egin.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA



LIBURUAK

MUNIBE 73.1

Aranzadi Elkartekoek hartu genuen, duela zenbait denbora, MUNIBE aldizkariaren lehen ale edo faszikuloa; batere ez baino berandu bederen ia beti hobe dela-ta laburpen bat egitera gatoz.

Amakaren bat lanek osatzen dute ale honen luze zabal aberatsa, gai eta idazle aldetikoa.

CONTRIBUCION A UN SUPLEMENTO DEL "CATALOGO DOLMENICO DEL PAIS VASCO" DE JESUS ELOSEGUI. Tomás López Sellés.

Oraindik argitaratu gabeko lehen-historiako azken aldiko hilobi edo oroitarrren berri ematen digu.

Bederatzi harraspil (cronlech), bederatzi trikuarri (dolmen), iruinari (menhir) bat eta hiru tumulo aipatzen ditu Euskal Herriaren zehar. Lan hau zortzi argazki ornatuak datorkigu. Egiten duen eskaerari lotua dago lanaren izen burua, zera alegia, argitaratu ditzala Jesus Elosegi 1953 geroztik agertu diren trikuarri eta besteak, bere orduko liburuaren erakishiaz.

HALLAZGO DE UN MENHIR EN LA SIERRA DE UR-BASA. Fermín de Leizaola.

Lanaren bukaera dakarkian laburpenaren nahiko adieraziaz gelditzen da bere lanaren muina: "Lantxo honetan, Urbasako Eskiza zelaiaren inguruetan, Bretxagaina deitutako lekuan aurkitzen den iruinariaren berri adierazten dugu".

"Iruinaria zutik dago, bainan okerturik eta agertzen den zatiak 2,84 m. neurtzen du. Karaitz zurizkoa da eta itxuraz landugabea".

IRUN ROMANO. Ignacio Barandiaran.

Duela urtebete inguru Irunen eman zuen hitzaldi bat agertzen digu Munibe honetan. Irun dugu Gipuzkoan aurkitutako erromatar lehen hiria eta bakarra, eta aberatsa berak dioskuna.

Beste aldetik Ama Xantalen ermitatxo, 1900 urtetan izan dena gaur agertuaz: lehenik herri, geroz erromatar hilerri edo kanposantu. Gainera Erromatar eliza daitekeen etxe bat, gero Erdi-Haroon kristau eliza izan zenaren agiriak eta denaren gainetik egungo ermita. Toki horrek aspaldidanik du, beraz, erlijiozko kutsua.

Hauetatik eta idazle zaharretatik gure Herriaz jakin daitekena, hermen duzu jarria, gure Herriak erromatarrekin izan zitzaizkeen harremanez batez ere.

EUSKO FOLKLORE. Jose Migel Barandiaran.

Muniben ohi denez lau bat orrialde eskaintzen dizkigu Don Jose Migelek, sorginen berri emanez oraingo honetan. Erabili izan dituzten tresnaz, agerketaz, tab.

DISTINCION CRANEAL ENTRE MARTA — LEPATXURI — Y LA FOINA — LEPAHORI

"Lan honetan lepatxuri (Martes foina) eta lepahori (M. martes) buruhezurretan dituzten ezberdintasunak aztertzen ditut, metodo berri bat erabiliaz. Bi mueta hauek kopeta-hezurrean dira ezberdin, metodo honek adierazten digunez".

CONTRIBUCION AL CONOCIMIENTO DE Micromys minutus (Sagua) EN EL CANTABRICO. Javier Zabala.

Gure langile gazteak lan ona bezain jakingarriaz eman die hasiera here azterketa lanei. "Iberika Peninsulako leku berri batzutan ere agertu da Micromys minutus delako sagua. Hauen berri ematen dut lan honetan. Euskalerrian ez zen gaurdaino ezagutzen. Ontzen hariletan (egragipila) aurkitu dira, Tito alba (ontza) delakoarenetan hain zuzen. Neurritz, Bi oso-oso ere harapatu ditugu, larru eta guzti. Peninsulan, lehendabizikoak dira".

HALLAZGO DE Coluber viridiflavus (sugea) EN EL PAIS VASCO. Jose Antonio Albiu y Pedro Suquia.

Suge mueta hau Olagáin Basoan Arruiz eta Urriza (Nafarroa) tartean aurkitu zuten. European ez zen egundaino hain sartalderuntz ezagutzen. 125 zm. luze suge hau, beltz eta hori tantoak ditu bizkar aldean eta hori du sabel aldean.

UNA NUEVA RAZA PARA LA PENINSULA IBERICA DE Plebejus hispana (tximeleta). C. Gomez de Aizpurua y F. Fernandez Rubio.

Jabierren (Nabarran) aurkitu duten tximeleta sail bat. Oraindiano eginda zeuden sailetan kokatzerik ahal ez-ta, sail berri bat sortu dute. Jabierren aurkitu denez gero "javieri" izena eman diote, beraz, sail hau Plebejus hispana javieri izanen da.

NOTA SOBRE UNA FORMA PROXIMA A LA Leptidea sinapsis colladoi (tximeleta). C. Gomez de Aizpurua y F. Fernandez Rubio.

Tximeleta honek aurreko hegaletan mantxa beltz bana ditu. Mantxa hau lerro zuri batek erdibanatzen duela. Granadan da bereziki zabaldua. Cazorla mendikatean, aurrekoek bezelako mantxa duena aurkitu dute, bainan mantxa hori zerbait ezberdin duena. Tximeleta bakarra harapatu dute dirudienez, eta aztertzaileek gehiagoren beharra aitortzen dute sail bezala ote den alde hori, edo-ta ale bakar batetan bakarrik den jakiteko.

CATALOGO MICOLOGICO DEL PAIS VASCO. Sección de Micología.

Euskalerriko ondoen katalogoa osatzen badoakigu. Mila mueta inguru agertzen dituzte ale honetan zerrenda eran, Micología Taldekoek.

Orain dela hiru hilabete eskuetara zitzaigun MUNIBE alearen berri eman dizuegu. Datorrenean, garaixuego idazten saiatuko gara.

MUNIBE 1973/I ARANZADI NATURA ELKARTEA MUSEO SAN TELMO. DONOSTIA.

Xabier I. eta Marzelino A. Aranzadi Elkarteko

URNIETAKO "EGI-BILA" ANTZEZ TALDEAREN BEIRA

Lerro hauen bitartez dei bat egiten diegu euskal antzez krea-tzaile guztiei eta batez ere bere lanak argitaratu ez dituztenei (AGORA Sariketan sarituak izan ez direnei eta abar...).

Mila kausa direla ta, Euskal-Herriari, obra asko daude ilunpe-tan. Hutsune hau bete nahiaz, euskal teatroari bultzada bat eman nahiaz, eta gure taldearen etor lanari begiratuaz, pozik ezagutu eta ikertuko genituzke beren obrak, beren lanak.

Harreman estuagoak nahi badituzue, edo obrak bidaltzeko prest bazarete, hemen doa gure zuzenbidea.

Esker mila aurretik.
Maria Arizmendi isasa (taldearen zuzendaria)
Casa Arizmendi

"BART AMARRETAN" eta

"GOIZIAN GOIZIK"

kanta zaharrak

Z. ARGIAren 544. zenbakian (abuztuaren bostekoa) irakurri berri dut Gorka Knörr-ek Arabako kanta zaharrez idatzi duen lan polita. Bertan, 16garren orrialdean jartzen duen bertsoa, G. Knörr berberari entzun nion Gasteizko bilera bazkaldon. Eta, «Bart amarretan» kanta entzutean esan nionaren argigarri, zenbait ohar egingo diot.

Batetik, kanta hori, Eibarren jasoa nuela, habanera doinuz. Eta, letra bera ere ez zeharo berdina. Knörr-ek ongi dion bezala, Azkuek Cancionero popular vasco-n dionez, Gipuzkoan «Bart amarretan» kantaren musika zabaldua zen Bilintx-en Loreak udan bertso-letraz kantatzeko. Baina Eibarko beste gauza bat da. Hemen, «Bart amarretan»-en bertso-letra kantatzen da (edo zan), esan dudana bezala, habanera doinuz. Letra ordea, era honetara:

Bart amarretan dontzeilla [nintzan,

amaiketako ezkondu, amabi santu gabekuetan gelditu nintzan alargun. Ail, zelako sentimentua; ail, zer pea biotzean, amabi santu gabekuetan alargun geldituztean!

Besietik, Baxenabarren Baxenabarren esango nion, baina Zuberoan esan behar nuen, kanta honen argumetuzkoa bazela beste bat, eta seguru asko bertatik zabaldu-takoaren kimu bat besterik ez zela izango berak kanta-zuena (Azkuek Aramaioko Oletan jasoa).

Zuberoako kanta, XVII. mendekoa nonbait, «Goizian goizik» izenez ezagutzen da. Mme. de Villehelo, Sallaberry, Ch. Bordes, Jaurgain, J.K. Gerra, A. Donostia eta Azkuek berak jaso dute. Iku-si R.M. Azkue-ren Cancionero popular vasco-ren 505/508. Hazparneko bati Donibane Lohizunen jaso zion eta gainera Bozateko (Arizkun. Nafarroa) bati ere bai.

Aita Riezuk, bere Flor de canciones populares-en jaso zuen, bukaera kanta hontaz eginak diren azterketen ohar-rrak agertuz. Azkenik, Jon Mirande adiskide gaxoak polizi-
-ipui bat antolatuz kanta honen inguru; 1960an «Egan» aldizkariari eman.

Bere lehen bertsoetik ohar-tuko gara bi kanten artean badala ikustekorik, argumen-tuaren aldetik behinik-behin:

Goizian goizik jeiki nündüzün, espusa nintzan goizian; Bai eta zetaz ere beztitü ekhia jalkhi zenian; Etxek'andere zabal nündüzün egüerdi erditan, Bai eta ere alhargüntsa gazte ekhia sarthü zenian.

Aita Riezuk lau bertso dakarzi, erdal itzulpenak eta argibidezko oharrek gehiturik. Doinuak ez dituzte berdinarik, baina hontaz jakitunago direnak ikus dezatela elkarren artean zer ikusirik duten.

Kantaren lehen eta bigarren bertsoek, Jaurgainek ongi aztertu zuenez, 1633ko gertakizun bat adierazten dute, Mus de Irigaray Alzaiako Gabriela Loitegi Aintzilako andereñoakin ezkondu zenekoa. Baina hirugarren eta laugarren bertsoak, Gerraren er-tziz, geroztik ezarritakoak izan ditezke, Kataluniako kanta zaharretan ere holako kondaira bat agertzen denez gero.

Dena dela, ezta batere harritzekoa kanta zaharren za-balkundea, eta hontaz bada zer ikertu.

Juan San Martin

ZINE

NAGISA OSHIMA

Japongo zinemaren aldaketa, hiru zatitan agertuko ditugu gaurko honetan. Hango zine-industria, urratzen ari diren bide berriak eta Nagisa Oshima-ren lanak aipatuko ditugu batik bat.

Japongo zine-industriak, oparotasun giroa bizi du. Joan den urtean 500 pelikula adina egin zituzten, eta bostehun hauetatik erdiak erotismo kutsukoak zirela jakiteak, pelikula mota honek munduan zehar duen arrakasta garbi erakusten digu.

Japongo zine-sortzaile etxerik nagusienak bost dira gaur egun: Toei, Toho Shochiku, Daiei eta Nikattsu.

1960. urte inguruan krisis latza jasan zuen hango zine-industriak, eta planteamendu berriak egitera eragin zien beharrek zine-sortzaile etxeei. Etxe bakoitzak arlo bat hartu zuen langai. Harrez gero, Toei, gogorkeriazko filmak egitera saiatzen da. Daiei eta Nikattsu etxeek (elkarlanean 1970. urteaz gero), gerla eta kondairazko lanak egiten dituzte: «Buda-ren ipuia», «Harresi handia» eta abar lekuko. Shochiku-k berriz, komedia tankerazko filmak egin ohi ditu.

Horiek horrela, filmik egokienak, enpresa txikiak sortzen dituzte Japonen gaur egun, eta pelikulen sor-keta, nahiz zabalduen lana, hiru eratara batez ere egiten dute:

A-Filma bukatu ondoren zine-sortzaile nagusiekin harremanetan hasiaz.

B-Diru-neurri jakin batez, zinema-areto jakin batzuetarako pelikulak eginaz (Art Theatre Guil edo antzeko erakundeentzat lan eginaz).

D-Alderdi politikoa batzuen babesean lanak burutuaz.

Enpresa txikietan lan dagiten zuzendaririk ezagunenak, hauek dira: —Oshima, Yoshida eta Shinoda, A.T.G. (Art Theatre Guil)-ren agintuetara.

—Yamako eta Imamura, enpresa handien harremanaz baliaturik.

—Shinsuk Ogawa, talde politikoen menpean.

Dena den, hango zinea bide berriak urratzen hasia dugu, azken aldiko pelikulek adi arazten dituzte. Izan ere zuzendari japonar bakarra ezagutu dugu oraintxe arte: Mizoguchi (1899-1956) alegia.

Gizon hau, antzerki lanetan jarduna dugu, bere lanetan garbiro ikus dezakegunez, eta Yasujiro Oru kin batera (1903-1963), Japongo mai-xu izan da zine-lanetan. Jarraitzaile-rik ere izan du geroztik, eta Ka-neto Shindo dugu ezparrik gabe, hauetan ezagunena. Bere «Ugarte biluzia» pelikula, Europako atek zabaldu zizkion hango zineari.

Hala ere, beste talde batek (1960. an sortutakoak) ezarri dizkio bere-zitasun berriak Japongo zineari, Frantziar «Nouvelle vague» mugimenduk egin zuen antzera.

1960.ko taldekoak, haurrak ziren bigarren mundu-gerla amaitu zenean, eta ez zitzaizkien zine-sortzaile etxe handiei atxiki. Ez zuten nonbait, inoren morroi izan nahi.

Zuzendari gazte hauetako bat har-tuko dugu aztergai: Nagisa Oshima. Oshima, 1932. an mundura zen Japonen, eta lehen aipatutako taldearekin badu zerikusirik.

Espanian, Benalmedenan jokatu izan dira Oshima-ren lanak, «Cine de autor» delako jaialdian. Kritikoek aho batez aitortu zuten, goi-mailako zuzendaria dugu japonar hau.

Nahiz Oshima berak, pelikulen bidez politikoa egiterik ez duela nahi esan, garbi agertzen digu bere lanetan Japongo gizartearen egoera politikoa.

Benalmedenara sei film ekarri zuten. Lehenengo erakutsitakoa, «Shi-iku», 1966. an egin zuen, Zenzaburu Ohe-ren nobela bat oinarritat har-turik.

Ameriketar abadore bat preso altxa, espetxeratu eta hil egiten dute japonar batzuek.

Nahiz film hau luze xamarra iru-ditu, garbi nabarmentzen da sor-taldeko pentsakera, zineak duen hizketa ezberdinen bidez. Gero erabiliko dituen pertsonajeak ere agertzen ditu.

Bigarren azaldutakoa, «Koshikei» izan zen. 1968. an egin, lehenago-tik beste zortzi pelikula ondu ondoren.

Zuzendaria, tinko agertzen da bere uste eta ideietan, lan honetan. «Heriotz-zigorren alde ala aurka-ko zara?» galdutuz hasten da, eta zigorraren aurka mintzatzen direnak (% 71), urkaketa bat ikustera da-ramatzi.

Benalmedenan hirugarrenoz joku-tu zena, «Shinjaku Dorobo Nikki» izan zen. 1968. urtean egin eta Oshima-k burutu duen lanik zailena. Kolorea ezberdin erabiltzen du, eta gaita hiru alderdiri lotzen dio: Lapurreta eta sexo arazoa, antzerkia eta ikasle manifestazio bat. Azke-nera jota, Oshima-k hain maite duen errealitatea eta ahalegiaren arteko dialektika.

Laugarren filma «Shonen» (1969) izan zen, eta zuzendariak egindako lanik errazena da. Familia batetako bizimodua du gaitzat. Egoki eginda-ko pelikula zinez.

Benalmedenan erabilitako bosgar-ren eta seigarrenak, «Tokyo sen-so sengohiwa» (1970) eta «Gishiki» (1971) ditugu.

1970. ean egindakoak, zinegile ba-tek bere lanetan duen bete behar-rra, eta gizarte politikoa zineak harma bezala duen eragina adiarazi nahi digu.

Pelikulan, zinegile bat azaltzen da, kamara eskuetan zuela manifesta-zio batetan. Poliziek hil egiten du-te, eta ondoren, kamara dela-ta, bere lagunek gogoetari ekiten diote.

Azkenik aipatutako filma, Japongo burgesiarren aldakuntzari lotu zaio: Ongi merezia zuen Oshima-k Benalmedenan egin zitzaion ome-naldia.

XABIER UNANUE

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, eta nora jo jakin bear du baserriar burutsuak, Berebiziko aragi pilak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

bergara

Aspaldi ontan ez degu izan aukerarik eta ez gogorik gure aldizkari ontan emengo berriak azaltzeko, izan ere lantegi geienak oporretan daudenez geuri ere alako opor gogoia edo nagieria sortu zaigu egun auetan eta egunak joan zitzaizkigun uste baino leenago eta uste baino ugariago; joan zitzaizkigun Dona Mariñe eleiza nagusiko jaiak, jai aundirik ez bazan ere, ba uda aldeko errietako jaiak esan daiteke galtzera dijozela. Leenago ziran txirrindulari laxterketa, igariketa, kukaiñak, musika eta erromeri alaiak etab. Leenago, poza eta ondo ospatu bearra eta Santa Mariñetarrak bazuten alako umore bereziko alako egun go-goangarrian bertako eleiztar batek esaten zuen bezala. "Nor apostolu jatorragorik gure Santamaina baino? Santuetan, aundiña, ederrena, maitagarriena, onena. Txarrena berri, Santiratu". Viva Santamaina Apostol!

Gizon jator maitagarri aiek joan ziran eta aiekin batera esan daiteke joan zirela errietako nortasun edo istori zati bat.

Mendietan zear ibiltzen geranez mendietako gauzak ikusten ditugu eta au orrela dala gure Udaletxe-ko Obretako Batzordeari (Comisión de Obras) galdera batzuek egitera ausartzen gera.

Ez genduke nai galdera auen bidez eztabaida bati bidea zabaltzea, baiñan errietarrak geran bidez beartuak gaude, eskubide degulako, joan dan igande baten ikusi genuena idaztera.

Pol-Polen asi eta Elosutik zear Araneke indaretzera datozen urak zergatik ez dira igarotzen auzo ontatik aurrera, zergatik dijoaz erre-kara?

Ur auen bidez Araneke indar-etxeak (oker ez bagaude) 70 zaldi sortzen zituhan. Joandaneke urtetan gelditi dago. Zergatik?

Ez dakigu gure Udaletxeak nola antolabideak egin dituan "Aguas del Norte, S.A." elkartearekin, baiñan ozo gaizki iduritzen zaizkigu errian alako ur premia dagoenez Pol-Poleko ur bikain paregabeak Deba ibai zikin ortara jaurtitzea.

Jakin zazue, ur oien ekarriera Bergarako erriak utsean ez zituela ekarri eta gaur egunez obra oiek egitera beartuko bagina Jainkoak daki bakarrik onen balioa zer izango litzatekean.

OETARA EZ DAGO EZKUBIDE-RIK!!

Gure lantegiko lagun degun Garmendiatar Maria Karmen, Agirre-beñatar Santosen emazteak, neskatilla bat izan du. Aitzbea izena jarri diote. Zorionak.

Baita, Inzatar Felixen emazteak, Begiristaintar Pakitak, semetxobat. Aitor, izena.

Irizar Maria Begoña, Inurra-tegitar Jabierren emazteak mutiko bat izan du. Inigo izen polita jarri diote. Zorionak denoi.

Saturrarango ondartzako sokorristei gure txalo beroenak jotzen dizkiegu ondartzan artan giza lan aintzagarrria egiten ari direlako.

Joan danastelenez, arratsaldeko bostak laurden gutxi, auengatik izan ez balitz, zenbait etxetan negarra izango zitzakean. Zeuen eginkizuna oso ondo betetzen dezue. Zorionak.

MENDIKOI

berriak, baina ez da nerea errua. Donostiako erdal egunkarietan bi-haramunean azaldu zen berria, Lezoko kronikan (nor duen DV-ko kronista?), eta, noski, letreroak agertu baino lehen bazekitelako.

Nunbait, guk ez dugu erdal egunkari kategoriarik, edo DV-ko kronista oso espabilatua da edo gu oso baboak. Nork daki?

AI! la ahaztu zitzaidan. Euskaraz eta erdaraz agertu dituzte; horrela, horrela. Zorionak eta eskerrik asko bidali ez duzuten berriagatik.

ALLERRU

Joan den Uztailaren 20ean, Elkar-te honek bere urteroko Batzar Nagusia izan zuen. Ohiturazkoa den bezala, beranduegi zelako ez nuen deiaren berri ematerik izan. Handik eta hemendik jaso dudanez, jende gutxi bildu omen zen (hau ere ongi errotutako ohitura) eta aipagarri bezala zuzendaritzarako jende berriaren aukeratzea eta dantza-taldearen erakuslearen uzteia izan omen ziren.

Zuzendaritza berriari kementsu jarduteko bezala, nola nahi dela, dantza-taldea alde batera ez uzteko eskatzen diot.

HERRIKO LANAK

Poliki poliki, baina aurrera dijoaz. Herriko Etxeko teiltatzen erloju berria jarri dute, lau aurpegikoa (aldamenean baditu beshainbeste altaboz baina oraingoz, bederen, ez dute funtzionatzen eta ez dakit zertarako diren); Behoko Plazako komunak ere laster bukatuko dituzte (bazen garaia); Kale Nagusian berri, espaloiak egin nahirik dabilzala dirudi; aurten bukatuko al dute?

FESTAK

Ondarrabian ezik, ingurutako herri guzietan izan ditugu jaiak. Herriko jende asko ikusi dugu, pozik eta jator. Baina Lezokoak ere gainean ditugula-ta, nahiko komeriaz izandu da gazterien artean festarik bai ala festarik ez erabakitze-ko; azkenan, festei baietz esatea erabaki zen. Dena beraz, antolatzailen esku dago; beste urtetan bezalako festa ridikulorik ez al du gu izaten, bestela bagoazke piktara.

Gu ere, Z.A. dela bide, saiatuko gera zerbait berezi egiten.

S.O.S. GAU-IKASTOLA

Lezok euskaldun izaten jarrai dezan, dei larri bat egiten diet Herriko Elkartei, eta ikastolari batez ere; beste urtetan euskara ikaste-ko ikastarorik antolatuz ez bada ere, aurten egin beharrezkoa da eta asmo hau zuzendaritza bakoitzak bere eginbeharren zerrandan aurre-ina izan behar luke. Ez dut uste oso zaila denik baina bai benetan premiarioa. Euskara beharreko egin behar dugu Lezon.

SISTIAGANEKO PELLOK

pasai donibane

HARRI ERORTZE

Uztailaren 25eko arratsean, herriko festak bete-betean ospatzen ari ginalarik, trumoi antzeko zarata handi bat entzun zen herrian. Gof-zeko 5tak ziren. Mendi tontorretik harri batzuk erori ziren herriko zenbait etxe jo arte.

San Juan kaleko 102 eta 104 etxe-bizitzak batez ere, ondatuenak izan ziren. Lehenbiziko etxean, Inalurreta Z. ARGIAren herri-emai-leen etxea hain zuzen, atze-aldeko horma edo pareta hautsiaz, «obus» bat bezela sartu zen bi nexka lotan zeuden gelara. Harri honek, hortan jakintsu diren pertsonak ziotenez, 12 tonelada inguru omen zuen. Zorionez, bi nexka hoiak, 7 eta 11 urte-takoak, atzamar arrastorik gabe salbatuak izan ziren.


Harria, haizeko mailu bereziekin puskatua izan zen.

Bigarren etxean berri, beste horrenbesteko harria, teiltatutik sartu zen hirur etxe-bizitza deseginik utziaz. Zorionez, hemen ere ez zen

zorigaitztorik gertatu.

Argazkian edo erretratuan ikus dezakezu nola geratu zen hoietak etxe bat.

Beste harri batzuk omen daude zintzilik. Herriko-Etxea, dakigunez, neurriak hartzen ari da; izan ere, ez genduke pentsatu ere nahi zer gertatuko litzakeen, erortzeko zorian arkitzen diren harri hoiak, amilduko balira. Jainkoak libra gaitzala!



12 toneladako harria etxe-gaiñera

SAN JUAN TXAPELDUN

Gipuzkoako trainerila Txapelketa, S. Inazio egunez, Pasaiko ibaian hain zuzen ospatu zen. Gure herriko arraunlariek Gipuzkoako Txapela jaso zuten, nahiz-eta egun honetako estropada galdua izan. Aurrera motellak eta zorionak!!

PELLO KIRTEN

Herriko-Etxeak zabalduko esku-ko programetan, Pello Kirten hau sartua zegoen. «El humorista» erderaz, «Jostalaria» euskaraz eta umeentzat zuzendua zegoela zion programak.

Barrabaskeria izugarria iruditzen zait. Izan ere, jendeari (okerrago umei) far-eragitea EUSKALDUNA RIDIKULIZATUZ eta lotsagarri jarriaz, euskaldunen kontu bizitzea eta aprobetxatzea da. Eta karidade eza ikaragarria!

Behin bakarrik ikusi izan dut gizon hau. Hamalau urte nituen. Adina edo edade horretan, ez zara konturatzaren behar bezela; baina, egia esan, nere ama eta amona arbuatzen (despreziatzen) ari zela iruditu zitzaidan. Eta gorrotatu nuen nere baitan. Utikan horrelako gauzak!

MIREN

soraluce

SORALUZeko GAZTERIA

Izen honekin eta guztientzako, sortu da Soraluzen leku berezi bat. Baina ez da bakarrik lekua merezi duena aipatzea, baizik bertan osatzen den giroa.

Soraluzetar gehienak jakinen dute «Juventud Gonzaga» deitzen zioten elkarteak nolako zen, urtean zehar antolatzen bai zituzten estropadak, jaiak, dantza saioak eta beste jaialdi interesgarriak; baina egun batetik bestera gauza hoiak bukatu ziren. Orduan jendearen artean galdera hauek entzuten ziren: zer gertatu da eta zergatik itxi da elkarteak?

Hiru urte itxita egon da; gazte gehienek, ez zuten ezagutu aurreko elkarteak; ez zekiten zertan gelditu zitzaientan dantzetako izan zitekeen elkarteak. Batzuek «Junta Provisional» bat osatu ondoren hasi ziren lanean.

Lehenbizi lehengo «Juventud Gonzaga» zuzendariakin eduki zituzten har emanak, eta lanak bete zituztenean agertu zituzten batzar nagusian, irakurri ziren gertatutako akatsak, baita estatutoko eta barriko regimena ere; azkenean, zuzendariak izendatu ziren.

Elkarte berria osatu zenetik, muti eta neskek osatzen duten juntia lanean gogor ari da.

Lehenengo antolatu zuten aste kultural bat; bertan hirur hitzaldi izan ziren; Sexualismoa, Konsumoko gizartea eta Euskal-kulturari buruz; astea amaitezko Elgoibarko «Koxka» taldeak kanta saioa eman zigan.

Gero haurren marrezki erakusketak eduki genuen. Interesgarria bertan berrehun haurrek eman zigu-

ten irakaspena.

Deba ibarreko Harmaginen larehun urte betetzean ere lan handiak egin zituzten; hitzaldiak eratu, egitaraua euskarara itzuli, bertsolariak, Euskal diska eta liburuazoka eta abar. Hauek eta beste lan batzuk betetzen ditu elkarte berri honek, baina gazteentzako ona bada, hain gazte ez direnentzako ez da. Zeren haiek esaten dute lehen-dik zirela laguntzaileak. Jaunok! zertan gabiltza! Ez zen ba desegin lehengo gizartea batzar nagusian? Orduan zergatik interes hori kritikatzeko. Egin zaitezte laguntzaile eta beste gazte guztiak dituzten eskubideak edukiko dituzte.

Askotan entzun izan dugu Soraluzen ez dagoela gazte jatorrik. Realista izango bagina ikusiko genduke zer garrantzi duten horrelako elkarteak jatorrasun hori lortzeko. Gu gazte garalako, dituzten helburuekin gaude, eta juntia osatzen dutenei eskari bat eginen genieke; ari zareten lanean jarrai, gazte guztien eta gure herriaren onerako.

GAZTE TALDE BAT

elizondo

BAZTANDARREN BILTZARRA

Uztaleko hilabete hori traketsa baino traketsago gertatu zaigu. Hasmentak hasmentatik beti muku eta eguzkirik gabe tarteka euria eta aldizka sapa eta zakar. Txarra kanpandako eta txarra ere jendearen-dako. Nekazariak belarrak ezin egin ez eta arrankure franko bazterretan. Hilabete guzira gisa hortan ikusirik jendea kezkatzen zagoen Baztandarraren Biltzarraren eguna ere eguraldi txar batek ondutuko ez ote zuen eta kezka hoiak oraindikan gehiago indartu ziren egun hortako argi-hastean euria ari zuela ikusi genuelarik. Gero atertu eta arindu zuten eguzkia ere agerturik, azkenean eguna aski ederra gertatu zitzaigun. Erran dezakegu denborakin suerte ona izan dugula.

Bederatzigarren Baztandarraren Biltzarra ospatu dugu Elizondon eta aintzineko urte hoietan bezala jende aunitz bildu da Baztango hiri nagusian. Hemen ikusi ditugu Euskal-Herriko zazpi lurraldeko euskaldunak, Nafarroatik, Iruñe, Tafalla, Lizarra, Ultzama, Bidasoa eta Erribera aldekoak, Gipuzkoarrak, Arabarrak, Bizkaitarrak eta mugaz-bestaldeko anaiak ere denak etorri bait dira baztandarren arte-ra egun eder hau goxoki igarotzera.

Bertzetan bezala lehenik Euskal-Meza. Elizkizun zoragarria, otoitz, kantu eta hitzaldi hungigarriekin.

Meza ondoren urteroko Organ-ibilaldia Elizondoko karriketan barna, leiro-aldia gisa hortan moldaturik: Balleko Etxeko Ikurriña aintzinean, ondotik Baztango txistulariak Maurizio gidari zankatela. Herri gehientsuenak agertu zuten beren karroza, hor ikusi genituela: Elizondo (sei), Elbete, Arizkun, Azpilkueta, Arraiotz, Gartziain, Irurita. Erratzuko herriak erakutsi zuten egiazko artzain batardi multxu batekin bere xakurrarekin eta astoekin. «Artzaina badao mendira» agertzen zuten «Cartel» edo irakarkian eta harek bazuen bizitasuna, hura egia zelakotz. Beste gainerako karrozek gauza aunitz erakutsi zituzten hala nola: «Errota», «Sagardotegia», «Ardi ilia arrotzen», «Belai Txikia», «Zurgindegia», «Elbeteko kupela», «Ile mozte», «Baztan zopak jaten eta ordago jotzen» eta gehiago ere. Bete bezala orga apa-induen artetan, dantzari eta soñulari taldeak, gazteria dantza eta iaui alaitasuna agertuaz eta azkenik Ituren-go ioileak beren gare aundiekin bazter guziak iharrostean zituztela.

Eguerdian plaza zaharrean Muti-Dantza. Gure dantzak sekulako arrakasta izan zuten eta dantzariak txalo beroak ikuslarraren aldetik.

Merkatuko plazan bazkaria mila bazkaltiarrekin. Bazkalondoan soñulariak, bertsolariak, kantariak. Lekumberriko kantariak arras ongi aritu ziren kantaldi zoragarria eginik. Batek baino gehiagok erran dauku eta arrazoinarekin hutsune bat nabari zela, kanturik ez izatea bazkaltiarren artean eta hala da. Zenbait urtetan bazkaltiarrek umore ederrarekin kantu zaharretan aritzen ziren eta aintzinat ere gisa hortan behar genuke. Bazkalondoan ordu erdi bat bederen kantu zaharretan eta herrietan ere boz-

karioz xaramelatuz gauza ederra litzake. Urtero bezala jendeak gogotik dantzatu zuen muti-dantza eta bai fandango eta purrusaldetan egin ahal guzian.

Ikaragarriko jendeketa karriketan, plazan etaostatu etan. Zenbat ote ziren Elizondon? 15.000? hola-tsu. Zortzi terdian Tolosako «Udaberri» eta Gasteizko «Guridi» taldeek dantza-agerpen zoragarria erakutsi zituzten.

Holaxe joan zaigu Baztandarren Biltzarraren eguna. Bete bezala beti honi buruz iduripen ezberdinak izanen dira bakotzak bere iritzia emanaz bete izaten bait-dira eztabaidak. Bete ere gure euskal-alorrean badugu naiko lana eta etsitu gabe jo dezagun aintzinat beti euskaldun onak izaten.

pasai san pedro

ABUZTUAREN 26AN

MARMITAKOA ETA...

Pasai San Pedroko Ikastolak ondoegi ohitua gauzka. Sariketarak antolatzen, jaialdiak prestatzen, zer nahi gauza eratzten mutilak dira sanpedrotarrak. Guk hemen Ikastolaren izena aipatu badugu ere, herri osoak, batez ere gazteriek, lanari gogor ekiten bait dio.

Eta orain uda partean, Abuztuaren 26rako Marmitako hirugarren sariketa prestatu dute. Lehengo bi sariketak zein baino zein hobekak izan ziren. Hamaika jende bildu zen Pasai San Pedroko kaiara, marmitako lanak dastatzera.

Aurten ere beste sariketa bat prestatu digute, baina sanpedrotarrek sariketaz gain egun osoa prestatu nahi izan digute.

Batez ere arrantzale eguna egin nahi izan dute, Euskal Herriko portutako kofradiko eta arrantzale bilduko baita egun horretan Pasai San Pedron.

Eta arrantzaleez ari geralarik, hildakoen, itsasoak irentsi izan dituen arrantzaleen alde meza bat izango da goizeko hamarretan. Arrantzale guztien artean eskainitako meza, guztiak otoitz giroan elkartzeko dituen bilera.

Mezaren ondoren, Euskal Herriko arrantzaleen Kofradien izenean, eta guztien izenak idatzirik dituelarik, koro bat itsasora botako dute gure oroitzenaren ezagutari bezala.

Arrantzaleen bizitza ezagutu ez zik bizi egin behar da bere garraztasunean ezagutzeko. Sarritan itsasoratu izan diren guztiak ez dira itzuli, itsasoak bereganatu ditu. Marmitakoaren egun honetan Ikastolaren jokabide honi txalagarria deritzagu. Baina esan bezala, ez Ikastolarena bakarrik, herri osoarena baizik.

Gainontzean, egun horretaz zer esango dugu? Lehen urtean azaldu zena ez zen damaturik irten, hurren urtean ere berriro ere han agertu izan da. Hain da atsegina egun horretako giroa!

Ea bada horrelako egunak arrantzaleen arteko lotura eta elkartasuna hestugotzeko bide gertatzen diren. Arrantzaleak, gaurregun aurrez aurre darduzkan arazoak direla eta elkartasuna behin ere baino beharrezkoagoa bait du.

ANDONI UGARTE



lezo

GURASO ELKARTEKO ESKOLA

Abuztuaren 4ko gauaz geroztik hedarik daude herrian horrela dioten letrero batzuek:

«GURASO ELKARTEKO ESKOLA. 1973-74 gn. kursorako EGB-ren lehen eta bigarren maila ezberdinetako ikasle berrientzat izan ematea. Noiztik nora: Abuztuko 6tik 20ra. Non: Eskolan hamarretatik hamabitarra. Edo: Jose Luis Goienetxea garna (Toki Eder etxean. Tfno. 355854) edo Jose Zurutuza (San Juan bidean, 26-4 gn. B Tfno. 356028) zuzenduz». Honeraino letreroak diotena hitzez hitz.

Kronika hau argitaratzen deneko agian ez du ezertarako balioiko

ELGOIBAR

KONTZEJALAK ETA HERRIA

HERRIAK ATERATAKO KONTZEJALEKIN ELKAR HIZKETAN

Garai batera arte, gure herriko kontzejalak, behatzarekin deituak ziralako edo, herritarrek, ez zituzten beren ordezkari hartzen eta elkarrekin hartu-eman oso gutxi zuten. Baina, orain sei-zazpi urte Sendi Buru taldekoak, halako giro osasungarri eta egoki bat piztu ondoren, lan ikaragarri bat eginaz, eta, herri guziaz mugituaz, beren benetako ordezkari egiteko kontzejal batzuek aukeratu zituzten. Orduan aukeratuak, herria bultzatza zutela eta pozurik eta asmo onez betetik hasi zidan lanean. Harrez gero ba dirudi bai Sendi Buru taldea eta bai Herria bera ere, orduko mogimendu hartan bertan nekatu zela eta Herriak ateratako kontzejal hoiak laguntzarik gabe arkitzen dirala eta hauei galderak eginaz azaldu nahi dugu gure herriko arazoa.

1-GOIA

—Esan genezake, zuek kontzejal bezala Herriak edo herriko gurasoek aukeratuak izan zinatela. Autezkunde hartan herriko talde bikain batek, kezkatu eta lan egin zuen. Herri osoko gurasoek ere erantzun oso pozgarria emen zuten. Baina, harrez gero izan ahal duzute herriaren laguntasun edo zuen eginkizunen ardurarik nabaritu ahal duzute?

—Bai, alde batetik oso pozik arkitzan gara Herriak halako iratzartze itzaropentsu baten itxuraz lan ikaragarri baten ondoren aukeratuak garelako. Bene-benetan uste genuen, Herria zezen eta kirolez gainera ere, benetan arduratzen hasia zela. Baina, lau-bost urte geroztik ezin dugu berdina esan. Udaletxeko ara-

zoak herritarrek ez dituzte berenak bezala hartzen eta ez dituzte gizar-tearen onerakotzat hartzen. Guzioi ere ez litzazuke gaizki etorriko elizan diogunean «da egin beharrak ez eginaz». Hala ere esan beharra dugu ba dagoela «minoría selecta» bat herriaren onerako kezkatuik dagoena.

2-GARRENA

—Esan beharrik ez dago, lan gogor egiteko asmoa zenutela haseran, uste dugu asmo guziak ezin bete ahal izango zirela, baina, eginda-koaz pozik ahal zaudete?

—Egia osoa zor dugunez, EZETZ esan beharra dugu. Sinistu ezinezko behar handi eta txikiak sortzen dira herri batetan eta hauek guziak egin ahal izateko eta behar diren burokrazia bidez lortuaz egitea oso zaila da. Esan dugunari diru eta denpora urritasuna ezartzen ba dizkiogu, egin duguna egin nahi genuenarekin oso motz gelditzen da.

Hala ere, atseginez eta pozik aipatu nahi dugun puntuak, auzoetarako bideen arazoa dugu. Hemen bai Udaletxeak egin duela ahalegin guziaz eta gaur Elgoibar izanen da Gipuzkoako herri aurreratuena auzo eta balladaei buruzko bideei dagoenietan eta hau guziaz baserriarren onerako eta lagundu nahiz.

3-GARRENA

—Zer eginkizun garrantzizko egin ahal izan dira urte hauetan?

—Asko dira egin diran lanak. Baina guri, etxeko-andreei gertatzen zaiena gertatzen zaigu. Egiten dana bistan egon arren ez da ikusten eta egiten ez dana ikusten da. Egin dana zerbait bada ere, egin ez dana gehiago ikusten da.

4-GARRENA

—Zuen ustez zer egin ahal izango da beste hiru-lau urtetan?

—Zalantzarik ez dago, ondorengo urteetan aldakuntza handiak izango dituguna gure herrian. Asmo asko dira. Batzuek beteko diranak, besteak hor geldituko dira amets hutsetan. Baina asmo onak ba dira ta ez gutxi.

5-GARRENA

—Egin behar enbat gelditu ahal da oztoporen bategatik?

—Bai ta esan beharra dago. Orain hamalau urte inguru Madriden erabaki zen 700 etxebizitza egitea eta horretarako lurra erosia zegoen. Geroztik Autopistak bi zati egin zuen lur sail hori. Harrez gero Etxegintzarako sortuak zidan kooperatiba taldeei alkartzea eskatzen zitzaion arazo hau aurrera atera ahal izateko asmoz. Honela harantz honantz ugari eta etxegintzarako zegoen Zuzendari Nagusiak baietza eman arren. Laister ezetza eta herriaren kalte eta nahigaberrak izan arren, lur sail hori, lehengo jabeen bihurtu zitzaion.

6-GARRENA

—Udaletxeak zerbait egin ahal du EUSKERA eta ikastolaren alde?

—Egia esan, guk uste dugu Udaletxeak, oparotsuago eta ongi nahi gehiagorekin lagundu behar lu-keala eta orainarte izen diren kez- kak uxatuaz, geroan ikastolari la- guntza emango zaion uste ba dugu.


7-GARRENA

—Atenez, zein da zuen iritziz herrian dagoen hutsik handiena? Zein edo zertan?

—Hutsak eta behar materialak asko ba dira ere, guretzat hutsik baharretako bat herriaren lagun- tza edo Udaletxearekiko hostasuna eta honek dakarkian kaltea dela esango genuke. Herriaren izenean eta herriarentzako eskari gutxi egi- ten zaizkigu. Hori bai, norberaren- tzat partikulari diranetan, hemen bai oso gogor esijitzen zaigu par- tikular hoiaren nahia aurrera atera ahal izateko eta hala ez bada, as- korekin gaizki geratu ere bai. Nor- baitek tranpaz edo zikinkeriz zer- bait lortu ba du, beste zenbait par- tikularrek, ere honek lortu duena lortu arteko pakerik ez du uzten.

Hala ere esan beharra dugu, ba direla gutxi batzuek edo elkarteren- bat Herriaren onerako hainbat lan egiten dutenak eta egiteko asmo sakonak dituztenak.

Baina, guzira jota esan dezake- gu, Herria Herri bezala ez dela arduratzen Udaletxeko arazoetan



eta hori delata, gure gogoia ahul- tzen dijoakigu eta uste dugu ez duela merezi adarrak apurtzen ibil- terik eta behar bada gure kalte- tarako.

Norbaitek esan ere egin du, guk kontzejalok frakasatuko dugula eta hala izanen da, baina guretzat Her- ri osoak (gutxi batzuek izan ezik) eta Herri bezala orain baino lehe- nago frakasatu digula. Gure erruz Herriak frakasatu edo Herriaren erruz guk frakasatu. Hor dago ka- koa.

Ona hemen kontzejal batzuek iri- tzia. Eta hau irakurri ondoren guk zer esan?

Etxe-Pe-tarrek

MAUXITXA TXARANGA

Jose Alberto Ansolakin nago; bai- nan Elgoibarren horrela deituta, iñork ez du ezagutuko. Bera Mauxi- txa da, jende gustiarentzat «Mau- xitxa txarangaren zuzendari. NOIZ, NOTA ETA ZEINTZUN ASI ZINATEN?


—1970'ko uztailan, Kuadrillakoal pentsatu gendun txaranga moduko bat ataratzia jai haietan. Orduan, bi- latu gendun batzuek instrumento jotzen zekitenak eta kuadrillako zaz- pi lagun ensaioetan asi ginan. Gero gendun lehengo txaranga. Geroago beste kuadrilla bateko birekin egin beste iru mutil sartu ziran. Orain gaudenetakoak, bost, ikasleak dira eta beste bos langileak.

Oraingo txaranga osatzen dugu, bombardino bat, bi klarinete, 2 saxo- foe, bombo, txapak, turuta eta dan- bor bat. Bakarri, iru daude, solfeo ez dakitenak. NUNDIN IZEN HORI

Herri guztiak daki, neri Mauxitxa deitzen didatela (nere baserriaren- gatik) eta ensaio baten, guetako batek esan zun izen hori jarri behar gendula eta denok konforme gera- tu ginan. ABESTI BERRIRIK EGITEN AHAL DU- ZUTE?

Ba, pieza berririk ez dogu atara- tzen, bakarrik, udan edo urten zehar gertatzen bada pieza polit bat, hori jctzen dogu. ZERGAITIK, JOTZEN DITUZUTEN ABESTIAK? NAHI DUZUTELAKO EDO JEDEAK ESKATZEN DITUELA- KO?

Guk, programa bat daukagu egin- da urte gutzirako eta momentu ba- ten esaten dugu: Beno, orain pieza hau joko dugu; baina jedeak eska- tzen ba digu beste bat, eta gure programan sartuta baldin ba dago, jotzen dogu. Zergaitik ez dogu jo behar? ZUK NOLA IKUSTEN DUZU ELGOI-



BARKO JAIEN GIROA? EZ AHAL DUZU ZUK USTE GERO TA ERDAL DUNAGOA DENIK?

Lehen, sasoi baten, bai; baina orain ez dui uste; Gaur, beste alde- ra jota dago, Elgoibarren behintzat. OSO BAIKORRA IKUSTEN ZAITUT PUNTU HORTAN MAUXI, BAINAN GALDETU NAHI DIZUDANA ZERA DA; ZUEK JOTZEN DITUZTEN ABES- TIAK ERDALDUNAK BA DIRA, JEN- DEAK KANTATUKO DITUEN ABES- TIAK ERDALDUNAK IZANGO DIRA, ETA, JAKINA, GIROA ERE BAI. HOR- TI EUSKAL ABESTIAK JOTEKO BE- HARRA. INOIZ PLANTEATU AHAL ZERATE HAU ETA PLANTEATU BA ZERATE ZER ERABAKI DUZUTE?

—Orain Mauxitxa baju, bajuan hitz egiten du, noizbeinkadetan.

—Ba, egia esango det, ez gera hori planteatu...

Ez dugu hitzik egin horretaz... Guk horren gain ez daukagu idea

bat eta gainera euskal-giro bat sor- tzeke pieza guztiak euskaldunak izan beharko ziran eta horiz ez dago. ETA EZ DUZU ZUK USTEN HORI PLANTEATU BEHAR DENIK?

Behar litzakela bai, baina... ETORKIZUNARI BEGIRA, ZEIN DA ZUEN ASMOA?

Ahal izan ezkerro, oraingo mo- duan jarraitzea. Datorren urtean bi edo iru saldauxara jun behar dute etz ez dakit txarangiaren etorkizuna nola izango dan. Orain, momentu hontan, ez degu ezer pentsatu baina nik uste dot «stop» egin beharko duzula. hauek soldautzatik etorri arte. Orduan ez dakit zer egingo dozun, jarraitu, utzi... JOTZEN ARI ZERATENEN, ZERTAN PENTSATZEN DUZU?

Nik neuk, pentsatzen dot, ondo pasatzen ari naizela eta hau sarri- tan izan behar litzakela.

E. I. «OLIXOK»



aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK, PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR. GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIAK.

ERAKUSTOKIA: FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459 - DONOSTIA

ETXEKO-ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabili beti Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jabol bakarria Etxeko-andrearentzat neskeren egokiena.

JABON LAGARTO

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Cetaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa. 422700 - DONOSTIA

danobat**ELGOIBAR**

hiru herri
euskaldunen bultzakadak,
danobat,
industria boteretsua
lortu du.



Gizon batzuek, gure industria zabaltzeko, gau eta egun izan duten ardurari ezker, elkartu ziren Elgoibar, Deba eta Azkoitia. Horrela, gaur egun, herri-aldeko lantegi gora-beheretan, lehen-maila baten jabetun dugu.

ELGOIBARREN ITXAROPENA

IKASTOLA BERRIA EDO

P. M. URRUZUNO IKASTETXEA

Elgoibarko ikastola Irakaskintzako Kooperatiba bat izateko bidean dugu. Oraindik orain aprobata dira "Colegio Pedro Miguel de Urruzuno" Elkarte Kooperatiboaren estatutoak. Hauze da gure ikastolari, haunditu den honetan, emango diogun "jantzia".

Dudarik ez, oraingo unea oso garrantzi handikoa da; halare, beste hainbaten artean bat gehiago denez, ezin esango dugu gure hazikera edo desarrolloaren alde eta ikuspegitik garrantzitsuen denik. Oraingo honetan gerorako oinarria jarri besterik ez baita egin.

Beraz, horra ikastola berak hain beharrezkoa duen nortasun juridiko batekin. Honenbestez ageriko zenbait arrisku gainazten ditugulakoan gaude. Gure aurpegia argi eta garbi azal dezakegu bai Administrazio bai beste zenbaiten erakunderen aurrean, batez ere horretara behartzen gaituztenen.

Zer dela eta jokabide hori? Hona hemen arrazoiak batzuk. Gaurren eskola parrokiala dugu ikastola eta legearen aurrean parrokian babesa berekin du. Baina, egiazki, hai antolaketa arazotarako, ba idiru problemak konpontzeko, bai beste zenbait zereginetarako Elgoibarko Izarra soziedadada dugu arduradun.

Diru arazoa ere ez da txantxetako. Diogun Ikastolaren kostua eta kapital immobilizatuarena 8.698.000 pezeta izango direla hurren urterako.

Dirutza honen erdia kapital immobilizatu honi dagokiolarik, berataz jabetuko zen erakunde bat sortu zen duela urte batzuek eta bere izenean ipini ziren ikastolak behar zituen lokalak.

Gauzak tajuz egitearren, haurren guraso denak egin ziren bazkide bazten zihon kapitala denena, eta ez haserako berrehunena bakarrik, izan zedin.

Ikastetxe berria egiteko, berriz, egin behar diren inbentarioak gogoan

izanik, hobe du askatasunez eta bere nortasunez jokatu, inoren loturapean irautea baino.

Funtzionalidadearen kostuari bagagozkio berriz, ezinezkoa zaio Elgoibarko Izarrari, "Centro Cultural y Recreativo" denez, horrelako presupuesto batetaz jabetzea. Legeak ez bait dio galerazi baino egiten. Azkenik, "Ministerio de Educación y Ciencia" erakundeak martxoaren lehenengoan emandako dekretorekin bidez, laguntza estala eskuratu behar badugu diru lortzea bilatzen ez duten gurasoen kooperatiba elkartek erraztasun haundiagoak izango dituzte.

Dena den, haurren guraso Kooperatibak egoki asko erantzuten du eta nortasun juridiko bat badu legearen aurrean. Lege aurrean, baideologiaren arazoak? Bada zereginik ikastola landa honetan.

Zer esango dugu herriko euskal giroaz? Aski ote dugu ikastola bat izatearekin, gure hizkuntzaren eta kulturaren larrialdia gainditzeko? Noiz ohartu eta konturatuko ote gera hizkuntza bizi batek ez duela mugarik ez limitatzen? Oraindik ere bai baita euskera haurrei hitzegiteko edo gauza sinpleaz hitzegiteko bakarrik dela pentsatzen duenik. Noiz iritxiko ote gera euskeraz bizitzera, gauzak, bai lantegitan, bai familian, bai lagunartean, bai solasalditan, bai eguneko zeregin guztietan euskeraz moldatze hori noiz eskuratuko ote dugu? "Probokazio" famatu horretara noiz iritxiko ote gera?

Erantzukizuna geurea ere bada; ikastolaren osagarri behar du etxeak, lagunartek, giroak haurrentzat. Gurasoen erdera joera ajolagabetua, telebistaren eta ipuinen eragina nola gainditu? Gure esku baleude...

Ikastolaren beste alderdi bat irakasleak ditugu. Esan ere esan behar ote dugu irakasle eta andereñoen lana garrantzi handikoa,

ezinbestekoa, dela ikastolaren bizitzan? Hauen eskutan dago hein batetan ikastolaren geroa eta haurren heziketa. Gure ustez ikastolako irakasle-andereñoak irakaskintzari erabat lotuta eta emana behar du. Haurrekin, haurren gurasoekin, etxeko giroarekin bat egin da behar du. Gauza asko eskatzen zaio andereñoari. Horietan beharrezkoa pedagogiaz jantzia egotea eta honen inguruan euskal kulturaz ongi jabetua. Eta, jakina, gaurregin ez daiteke bakarka ezertxo ere egin, eta elkar lanean ihardun behar dute andereño eta irakasle lan onurakor bat egingo badute.

Eta lantxo honi amaiera emateko gure pausorik eta asmorik nagusiena agertuko dugu: E.G.B.ko ikastetxe berri egitea. Hamaika buruaste emango digun arazoa, noski. Diogun, terrenoaz gain 15 milioitik gora kostako dela ikastetxe hau. Horretarako Plan Partzial bat moldatu dugu eta Udaltzuek onartu emango duelakoan gaude. Hori, bete-betearen espero dugun zerbait da. Era honetan eskoletako eskaintzen diren lurretan gure ikastetxea jasotzeko bide eta egokiera izango dugu, noski.

Estaduaren laguntza ere izango dugu ikastetxe hau jasotzeko. Orobat bazkide bakoitzaren diru-laguntza ere, beharrezkoa zaigu. Haurrak E.G.B.ko zortzi zortzi kursoak egiten dituen momentuan, diru hau gurasoei itzuliko zaie.

Hauek dira, labor eta gaingiroki esanda, gure asmoak eta ideiak. Asmoak asmo, aurrera goazela, esan behar. Bidea zabalik dugu eta herria eta ikastola zai; gure erantzunaren zai.

Baina honenbestez, ikastolaren arazo guztiak konponduak ote ditugu? Bere efikazia, jarraipena eta da nor.

JUAN JOSE



DANTZA TALDEAK DIRELA-TA

ELGOIBARKO IZARRA elkartearen barruan dagoen talde batengana (dantza atala) joan gara, heuren asmoak eta iritziak ezagutu nahian.

—Noiz, nola ta zer helbururekin sortu zen dantza talde hau?
—Orain dela zazpi urte sortu zen, Ikastolan zenbiltzen umetxo batzuekin. Bere helburua, esan daiteke, ikastolako orduetik aparte umeen heziketari jarraipen bat ematea zela.

—Gaur egun, zer helburu duzute lan horretan jarraitzeko?
—Hasierako helburuaren jarraitzaileak gara. Gure nahia, umetxo hauen bidez giro bat sortzea ta kultura sari hau herriari agertzea da. Nahiz ta orain arte lan gutxi egin hortaz, gure gogoan Elgoibar eta inguruko dantza zaharrak ta ahaztuta daudenak ikasi ta eakustea da.

—Ikastaro hau ikastolako umeentzat bakarrik ahal da?
—Esan dugun bezela, hasieran ikastolako umeentzat izan zen, baina orain herriko nahid uten ume guzientzat sarrera irikita dago.

—Ume hauek nun agertzen dituzte ikasitako dantzak?
—Gure herri-inguruko jai aldietan parte hartzen dute. Ta, igaz hasi ginen gure herrian umetxoaren eguna antolatzen.

—Egun hortan ume guztiak parte hartzen ahal dute?
—Urtean zehar ikasi dituzten dantzak agertuaz, aurten, 300 ume inguruk dantzan egin dute eta denak elgoibarkoak.

—300 umeri dantzan ondo erakutsi ahal daiteke?
—Ez, gure asmoa ez da 300 artista lortzea, baizik, ume guztiak dantzen bidez, giro baten sartu eta hori lortu ta gero, agertuko dira talde ta dantzari onak.

Dantza taldeei kalidadea exigitu behar zaie, baino herrietako umeen jai-aldietako helburua giro bat sortzea da ta giro oriatik ta ume hoieta-tik jaioko dira talde onak. Baina batez ere gu kezkatzen gaituen alderdia «giroa» da, Euskal giroa.

Beraz, garbi dago, dantza, dantza bezala bakarrik ez dela erakusten, baizik eta Euskal heziketa osoago bat eman nahian batez ere.

Maria Isabel eta Pake

AUBITXA ETA UDALEKUAK

Herri honetarako berriak azaltzerakoan ez dezakegu utzi Aubixa inguruko aizeen berri eman gabe.

Elgoibarren egun dela urte bat aurretik oso gutxi batzuek ez ezik ezagutzen ez genuen baserria. Azken bolara hontan, hitzetik hortzera darabilkigun Kalamua bizkarreko baserriaren izena da Aubixa.

Aubixa inguruko giroaren berri jakiteko zer hobe hau errealidade bihurtu duten gendearekin elkar hizketa bat izatea baino?


Honetarako bildu gara Juango Araolaza, ideia hau ekarri zuen guraso bat. Antonio Albizu, ideia hau hartu eta baserria dagoeneraino jarri duten taldeko beste gurazo bat. Eta haurren egoera antolatu eta begirale egon diren unibertsitari, irakasle eta gazte bat.

—Nundik jaiotzen zen baserri bat hartzeko ideia?

Zarautzen zerbait honelako eza-gutzen genduenek, eta honen inguruan ja zoten ari ziren esperientziak arras interesateak iruditu zitzaizkigun. Eta giro honek bortzatu-ta lehenbizi Angel Lertxundi ekarri genduen Zarauzko taldeak beren Goiako baserrian jasotzen ari ziren esperientziak ager arazteko hementen bildu zen guraso multzoari. Eta hemendik sortu zan baserria behar bezela jartzea posible egin duten guraso taldea.

—Zer pauso eman dituzte baserria dagoen bezala ipintzeko?

Lehenbizi dirurik ez genuen lan honi ekiteko eta etxe, denda, eta lantokietan bastertzen diren pape-rak batu eta gero zalduaz dirua aterata zezakeala bururatu zitzaigun.



Baita ere lanari gogoz ekin, herri guztiak lagundu du uste ez genuen neurrian paperak ezkeini-az. Pozgarria izan da guretzat asteroko paper biltze, pakete egiten eta kamioa kargatzen. Ehun ta berrogeita-hamarretik gora adin guztietako gendeak parte hartu dutela ikustea. Zazpi hilabetetan 81.000 kilo paper batuz 141.000 pezeta eskuratu dugu, gurasoen aldetik 60.000 pezeta inguru ere jaso dugu, baita ere beste zenbait eskeintza izan dugu material aldetik: zementu, baldosa ta abar. Esku lan aldetik ere berdin. Asesoramentu eta laguntza teknikoa ozan dugu herriko arkitekto jator baten gaitik. Baserrian lana

garratz egin beharra egon da aurtengo udalekuak antolatu ahal izateko. Lan gogorra egin beharra izan dugu baserria dagoen bezala jartzeko baina orain ikusten dugu me-rezi zuela lan hori egitea. Pozgarria ere guretzat uzte ez genuen hainbat gende izan dugulako gurekin lanean herrigintza lan zail hon-tan. Etxearen sail bat taxutu dugu eta datorren urterako beste asmoak darabilzkigu gure buruetan.

—Nola izan da aurtengo udalekuak antolatzeko?

Hiru txanda izan dira, lehenengoan hogeita lau, bigarrenean hogeita bost eta hogeita lau irugarrenean, zazpi urtetatik hamarrera

bitartekoak. Aurretik honetaz zerbait esperientzia genuen gazte talde, irakasle eta guraso batzuen artean osatu dugu egunerako egitaraua eta abar. Udaleku hauek igaro ondoen konturatzan gara zenbait hutsunetaz eta esperientzia hau nahi dugu aprobetxatu nabaitu ditugun hutsuneak hurengorako betetzeko.

—Zertan nabarmendu dira hutsune hauek eta pentzantzu ahal duzue hauek betetzeko posibilitatea?

Urte barruan ikastolako ikasketetan motz gelditu ohi diran zenbait gai. Hotz. Hizkuntza, hiztegia, artea eta abar dira ikusi ditugun hutsuneak. Irakasleekin hartu eman ez-tuago baten bidez ikasketak hauek ondo antolatu genezakegula itxaroten dugu.

—Eguna nola igaroten zenuten baserrian umeekin?

Egun bakoitzari gai bat jartzen genion, adibidez. Egun bat gipuzkoarena, bestea bizkaitena, elgoibarra eta onela euskal herriko alderdi guzietan. Egunari zegokien hitzaldi bat ematen zuen begiraleen batek, gero umeak gaiari buruzko marraskiak eta idazlanak egiten zituzten, honela euskal herriko alderdi guzietan berri zerbait ikasi ahal izan dute. Baita ere ospatu ditugu abereen eguna, hauek ezagutuaz, inguruko mendietara ibilaldiak, jolasak, abestiak, eta abarrez iagaroten genuen eguna. Udaleko hauen alderdi interesate nabaitu dugu umeen eboluzioan lehenengo egunetako comportamentua oso berekoi izateatik azken egunetako zabalagoa eta jatorragoa zela garbi

ikusi dugunean. Pozgarria izan dela ume guzientzat izan uten esperientzia, beurak aitortu dutenez eta guk nabarmen ikusi dugunez.

Azken galdera gurazo ekintzaileari.

—Udalekuak igaro dira, esperientzia onuragarria izan da umeentzat, orain epe luzea dago hurrengo udara arte, ez ahal legoke gurasoentzat zerbait horrelako egiterik? Horetaz zerbait pentsatu ahal duzute? Asmo berezirik bai al duzute hemendik aurrerako?

Gauza asko darabilzkigu gure asmoetan, baina gauza zeatzik ez dugu oraindi. Erabakitzen. Dugunean berri, emango dugu.

HARRI

FAGOR

edaria

epela dagola?

FAGOR ek

oztuko

du bereala

ELGOIBAR

ZURE ETXEA DEKORATZEKO

“COLOWALL”

Era guztietako moketak saldu eta ipintzen dira
San Bartolome, 16 — ELGOIBAR — Urrutizkiña: 74 15 88

LAURAK


ELEKTRIKO INSTALAZIO LANAK

Santa Ana, 24 — ELGOIBAR — Urrutizkiña: 74 14 85

Manufacturas ARRIETA

AVELINO ARRIETA

Eskopeta Lantegia



Urasandi Auzoan — ELGOIBAR — Urrutizkiña: 74 04 89

Carrocerías Elgoibarresas

Autoen karrozeri eta txapa lanak
Berebil alkilerre ere bai

Eulogio Estarta Ibilbidea — ELGOIBAR — Urrutizkiña: 74 07 12

SASTRERIA

“ONENA”

Gizon-emakumezkoentzat, berdin haurrentzat

San Bartolome, 22
Urrutizkiña: 74 03 88
— ELGOIBAR —

JATETXEA - BAR

“Txarriduna”

JAN-GAI AUKERAKOAK
ETA
LURRALDE BERRARIZKOAK

Magdalena Auzoa
Urrutizkiña: 74 12 50
— ELGOIBAR —

Jestoria -

Auto-Eskola

San Franzisko, 22
Urrutizkiña: 74 16 51
— ELGOIBAR —

PASAPORTEAK

—Automobilien erosketaberri
EIZA TA ARRANTZA
BAIMENAK
—Gidari karnetak
JABE ALDATZEAK
—Erabat, edozein arazo
MATRIKULAK
FOTOKOPIAK BEREALA

M. Arrieta

San Francisco, 14
Urrutizkiña: 74 05 49

San Bartolome. 18
Urrutizkiña: 74 08 49
— ELGOIBAR —

«GOITI» EGITZAK, S. C. I.

Etekintzako Fresadora Hidraulikaren Egintzak.

40, 70 eta 100 toneladako gai diran Zapailu Aldenduak.

Etxegintzarako burni borobillak lantzeko makinak.

Era batera, Etxegintzako lanak, Aroztegi Mekanikoakin.

Poligono Industrial Arriaga

Apartado 80

Urrutizkiña: 74 03 62

— ELGOIBAR —

Alcorta, Uzueta y Compañía, S. A.

Fábrica de herramientas - Forja y Estampación de piezas



Apartado 1

Urrutizkiña: 74 13 46

— ELGOIBAR —

SOLAIRUAK LEGUNTZEKO ETXETAN «FANTASIA» ZABALTZAILLEA

ANTON Erredizak - Muebles

MOKETAK, ALFONBRAK, OIAL-SAREAK
ERAKUSTEGI EDERRA

San Franzisko, 11-16

Urrutizkiña: Etxekoa: 74 02 91
Erakustegikoa: 74 11 88

— ELGOIBAR —

CUESTA IRARKOLA

Era guztietako imprenta lanak

Pedro Migel de Urruzuno, 4

Urrutizkiña: 74 11 91

— ELGOIBAR —

« ANAYAK » industriak

FRESA LANETARAKO MAKINEN EGILLEA

Apartado 97

Urasandi Auzoa, z/g.

Urrutizkiñak: 740450 - 740454 - 740458

— ELGOIBAR —

« VALDES » s. a.

SEAT BANATZAILLE ARDURADUNA
ERAKUSKETA ETA LANTEGIAK MARKINA BIDEAN
Bertan salmenta eta era guztietako konponketa

Markina bidean, s/n.

Urrutizkiña: 74 11 74

— ELGOIBAR —

ELGOELECTRO S. L.

Transfer tramankuluetako kontrola egokia
Motorren abiadura neurtzeko
Programazioak zuzentzeko
Industriarekiko elektronika lanak
Egitamauak, instalazioak, eta era guztietako
eleztrika eginbideak

Avda. Estarta, s/n.

Urrutizkiña: 74 15 21

— ELGOIBAR —

PINTURAS IPINTZA

Pintaketa eta margo lanak
Moketak, parket, sintasol, balatred, sintasol, persianak,
eta abar jartzailea

Rosario, 11

Urrutizkiña: 74 12 04

— ELGOIBAR —

ERBI SURTAMAK**S. C. I.**

EIZTARI EIZ-EZKILLU EDERRAK

Avenida de Elogio Estarta, s/n.

Urrut.: 741466 - 741462

— ELGOIBAR —

«KONDIA»

BIKAIÑEAN ETA IRAUPENEAN AURRENA — ZUTIKAKO TA
GUZITARAKO ERROTA-SEGAK (FRESADORAK)

Urrutizkiña: 74 15 90

— ELGOIBAR —

TRANSPORTES

«BERASETA»

ERAMAN - EKARRIAK

Urrutizkiñak: 74 14 47 - 74 03 88
— ELGOIBAR —**“Aramburu”**

San Franzisko, 26

Urrutizkiña: 74 14 67

— ELGOIBAR —

Muebles**“Iriondo”
Erredizak**

San Bartolome, 10

Santa Ana, 8

Urrutizkiña: 74 12 34

— ELGOIBAR —

Jose Maria Etxabe

BURNIKIAK

San Franzisko, 47

Urrutizkiña: 74 02 87

— ELGOIBAR —

**NORBERTO
ZABALA**MARGOLARIA
EDERTZAILLEAGordailuak: Rosario, 32
Urrutizkiña: 74 17 03

— ELGOIBAR —

ELGOIBAR**ELGOIBARKO
ELKARTEAK**

Elgoibarren baditugu hainbat Bazkuna beren eginkizun bereziekin. Kultura, deporteak, atsedena dute gehienak helburutzat.

Ez dago ukatzerik, beharrezkoak direla, baina zerbait alkartasun eta hartu-eman batzuen bidez uste dugu gure herrian diren garrantzizko behar askoren artean zenbaitzuek, askatu, gaintu edo ondu ditezkeela.

Elgoibarko Izarra» bazkuna dugu lkastola eratu zuena eta aurrera jarraitzeko benetako lan eta ahaleginak egiten dituen. Euskal dantza, txistu, hitzaldi eta abar euskal kultura lantzea da bere eginkizun bereziarena.

Bere mila pasa Bazkide eta egiten duen lana ikusiaz esan dezakegu, gure herriko Bazkun indartsuenetako bat dugula.

«Ongarri» Bazkunak azken Batzar Nagusian era-berritze bat egitea erabaki zuen. Horretarako hiru sailetan eratuak izango diren eginkizunak:

a) Hitzaldi, kursillo, literatura eta abar.

b) Arte saila, antzerki, zine, margoketa eta abar.

d) Jai-aldi, herri-jolas eta abar. Behar diren komisioak eratu eta urteoroko «sokorrismo» kursoa, «Bartoluetako» tanborrada eta dantzak, umeen margo sariketa eta ostentzeko lanen gainez beste zerbait ere egitekotan dire.

«Juventud Elgoibarresa» gazte taldea ere badugu. Parrokiko kongregazioaren ondorengo bezala. Herriko arazoetan partu hartu edo zerbait egiteko asmotan dire. Ezin dugu Elgoibarko kirol bazkunetaz ezer askorik aiatu zeren asko luzatu gindezke eta garbi daude beren eginkizun eta jokabideak.

Baino ezin dugu aiatu gabe utzi «Guresoan Elkarte». Bi edo hiru eginkizun erdi-ixil aurrera eraman ondoren idazki bat zabaldu zuen etxeetan, herriari zer falta zaion kultura eta jolas aldetik galdetuaz, guzian artean egin dezakeguna kontuan hartuaz eta zenbaiterainoko egintzetan parte hartuko duten galdetuaz.

Orain arte erantzun motel xamarrak. Ehun inguru izan dira izena eman dutenak eta hauetatik oso gutxi lan egiteko prets daudenak. Errazago da bai diru apur batekin laguntzea, lanerako konpromisoa hartzea baino. Hontarako batzuek ez dute ez atirik, ez betarik, egia da, baino, gogoia da askori falta zaiena.

ALKARTASUNA

Ezin gindezke egon, goikoek dana egiteko zai. Orain arte hemen eta beste alderdietan goitik behera eratuak diren egitura edo estruktura

gehienak eta ikusten dugu mundu honen egoera negargarria. Marco Marchioni, «Desarrollo Comunitario» eginkizuneko italiar langile burrukatuak esaten digu; herriari galdetuaz herriarentzat eta herriarekin benetan lan eginaz, eratu izan ba liru mundu hontako gizonen aurrerapen eta osaketarako behar diren egiturak izango lirakeala, bai akats eta hutsuneak ere, baino berak ez dudarik, pake eta justizi gehiagoko mundu bat izango genukeala. Eta ez da gutxi.

Elkartu gaitezen bada, kultura, kirol eta bai atsedean bazkunak eta ekin dezaigun herriko arazo eta beharrak ausnartu, sakondu eta soluzio bideetan murgiltzen, badago zer eginik gure herrian eta.

IRAKASKINTZA

Aurrerago, Magdalenakoa eta orain Santa Klarako eskolak itxi dire, neska moltzo bat kalean galdituaz, nun jarraitu ez dakitelarik eta problema latzarekin.

Eskola Profesionala, beti bezala erdipurdika joekin jarraitzen du. Instituto berriaren obrak geldi daude aspaldidanik. Ez dakigu zer gertatzen den. Martxa hontan E.G.B. bukatu ondoren gure herriko zenbait neska mutilek nora jo, burukomina izango dute.

GAZTETXOEN EGOERA

Hamairutik hamazazpi urteetako neska mutilen izenean eta hauetako talde baten izenean izan dituzte alkar-hizketa batzuek, gurasoen batzordearekin, adin horretako gazteen egoera tristea aipatuaz. Dantzatokiaren sarrerarik ez dute, zinema, biltoki eta jolas lekuetan badituzte eragospen ugari. Gurasoen laguntzuna eskatu diote, egoera hortatik irten nahian. Bidea izan daiteke, gartzetxoan elkarte bat eratzea, biltoki bat bilatu eta moldatuaz. Baino gurasoen erantzun diote, aurretik beste toki batzuetakoak ikusi beharra dagoela eta txukun ausnartu bai zer eraketa edo nori zuzendu eta aurrera aterako duten, nagusien kateetan erori gabe. Soil-soilik eta kanpotik guraso edo beste talde batzuen laguntasuna onartu ditek, baldintza eta esku sartzerik gabe.

ZAHAR SARITUEN EGOERA

Bizitza guzian lanean igaro ondoren erretiratu edo zahar saridunak ere eskatzen dute zerbait. Beste herri batzuetan gertatu dituzte edo gertatzen ari dire leku bikainak, atsedean apur bat izan dezaten. Gure herrian noiz izango dute merezia duten holako zerbait?

B. EZENARRO ETA
P. M. URRUZUNO KALIAK

Sinistu ezin genduena, egiteko bideetan dijoakigu. B. Ezenarro eta P. M. Urruzuno kaleen bukaera laister ikusiko dugu. Lerro hauek azaldu ordurako ez bada ere, aurtengoz kale hauetan basatsatan sikintzeko bildurrik gabe ibiliko gara. Pozgarri izango zaigu benetan kale hoieta bukaera.

FRONTOI ITXIA

Elgoibarren frontoi itxi bat behar beharrekotzat jotzen dugu. Ba dira namaika-hamabi urte Baltasar Bazkunak, Udaletxeko zuzendarietako plan-teamendu bat egin ziotela, frontoi berria egiteko eta azken bultzada eman zezaten. Baietza hartu zuten baino urteak joan eta urteak etorri eta ezer ez dugu ikusten. Entzun izan dugu bai Udaletxeak baduela egiteko asmoa eta horretarako tokia ere ba dutela eta laister hastekotan direla. Hala izan bedi.

ETXEGINTZA

Zer esan gure herriko etxegintzaz? Egunorokotan urakurri dugu birritan ere hortaz. Etxe-bizitza txikiak, oso garesti dute salneurria. Askotan langilea, lepotik lotuta uzten dute etxe erosteketa hoiak.

Arazo honak soluzio biderik duenik ez du ematen gure herrian, batez ere giza-etxe egiteak, laguntasun gehiago ez duen bitartean.

Gure ustez ez da aski Udaletxeak eraketa administratibo bat bezala bakarrik jokatzera, baizik parte hartu behar du batez ere, herriak dituen behartasun handiei buruz. Irakaskintza, jolaz eta kirol lekuak eta giza etxeak, esate baterako, garrantzizko eginbeharrak dire.

Baino ez dugu nahi, gure Udaletxeko gizonen bizkarretan oso osorik jarri eginkizun guzi hauek.

Elgoibarko Bazkunak zerbait egin behar lukete eta denok esnatuaz eta ahalegin pizkabat eginaz, hutsuneak bete eta lehendik dagoena zuzendu eta hobetzeko. Horrela ez badugu jokatzeko eta askok ikusi ez-tare gure herria atzeraka eta anka gora joateko harriskuan uzten dugu.

Badakigu, konsumoko gizarte honek eta bere inguruan dituan egiturak, individualismo eta arduragabeko egiten gaituela.

Hala ere, gure herrian, aurrerakuntzak duen garrantziaz konturaturik, Gurasoen eta beste Elkarteek deiak erantzun zabal eta jator bat izan behar luke elgoibartarron aldetik.

S. Osoro ta Etxe-Pe-tarrek
Elgoibarren, 1973ko Abuztuak.

YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA



NEKAZARITZA AN ETA EMEN

Jose Alkiza

EUROPAKO AIZEAK

BERRIAK

Aldian behin gogoratzen zaigu Europa ortxe atetan daukagula eta ango berri jakin nahia sortzen. Uda ontan, Europako asko pasako dira Euskal Errian zehar beren autoetan. Guk albotik begiratzen diegu, ibai ertzean ura nola doan begira dagoenak bezala. Ez da ainterraz ordea, eurekin arremanan sartzea, pasa egiten direlako, izkuntzaren zailtasunagatik, eta abar; are eta gutxiago an nola bizi diran eta ze buruhauste darabilzkiten jakitea.

Gu, belarrak ondu ezinik gabiltzan bitartean, iparretik egoera kotoxepasea doa, udazkeneko usapasea bezalaxe.

Barruan dihoazten gizonak?

—Gu baiño obeto bizi dira oiek, illabeteko bakazioak artzen dituzte, eta gaitia mundua korritzen, gaur etxetik kanpora ibiltzeko behar darenekin!!

Baina European ere badituzte beren arazoak eta ez txikiak. Europako nekazari askok, guk bezain etorkizun motza du, eta beren baserria utzita kalera joan beharrean dira, bizimodua aterako badute.

Oraindik erain Sicco Mansholt-en deklarazio batzuk irakurriak ditut.

Mansholt au, sonatua da urte batzutatik onuntz, Europako nekazaritza eta ganaderitza buruz egin zuen plana dalata. Nork ez zuen entzun bolara batean "plan Mansholt" izenburua bederen? Atera zuen ixkanbilla franko. Batzuk alde eta besteak kontra, izan zen eztabaida ugari, baiña azkenean aurrera doala, nik uste.

Mansholt jatorriz Holandarra da, baiña Europako merkatu batuaren zuzendari. Ez du Holandari begira eta Holandaren izenean itzegiten, Europari begira eta European izenean baizik.

Ona zer esan duen:

—"Argentinan nenbillenean askotan entzun nuen, guk Europako merkatu batuan gehiegi babesten ditugula etxeok, barrukoak. Egia da, babesten ditugula gure ganaduzaleak eta nekazariak, Europako baserriak txikiak eta pobregiak baitira.

Emengo langilleak, batzaz beste, kaleko langilleak alako irutatik bi irabazten du.

Izan ere, Europako baserriaren neurria, batzaz beste, 12 hektarea lur da; edota, ganadutara jarrita daudenak, 8 behi daukate baserri-tar bakoitzeko.

Onak esan nahi du ezin dezaketela irabazi, jenero asko ateratzearen poderioz, duten pixka garesti salduz baizik, eta ortarako, kanpoko kompetentziatik babestu egin behar ditugu.

Edozeinek daki ezin dezakegula orrela segi. Gure nekazaritza beste era batera moldatu behar dugu. Nola ordea? Zer egin gure baserri-tarrak beren jeneroak merkeago saldu eta gehiago irabaz dezaten? eta kanpoko kompetentziatik babestu beharrik izan ez dezaten?

Urteak daramazkigu korapillo ori askatu nahirik. Guk egin genuen plan bat, baiña nekazariak keja ziran, protestan altxa. Ez gazteak, gazteak gurekin bat datoz; baiña bai zaharrak, zaharrak kontra altxatu ziran.

Baiña zer gertatzen ari da?

Amar urteren buruan 5 milloi baserri-tarrek uzten dutela beren nekazaritza edo ganaduekiko lana. Batzuk zahartu diralako eta besteak industrira dihoaztelako. Gazteak ere kalera baitoaz, prezioak bazu eta irabazirik ez dalako ateratzen.


Ori dalata, plan bat egin dugu aurrera begira, eta burruka latzak jo baziran ere, azkenik ontzat eman zan igazko apirillean.

Iru puntu aukeratu bereziki.

1.—Baserri-tarrok lanari uztea gonziatzen ditugu 55urte betetzen dituztenean. Dirua ematen diegu,

lurrak gazte bati eman behar dizkiote; errentan, salduz edo emanez, baiña aurrera biderako planean sartuta dagoen gazte baten eskuetan utzi lurrak, berdin dio bere semea badu ere.

Eta gaur gure baserri-tarren erdiak 55 urte baiño gehiago dituzte. nolabait esateko "jubilaritza" pagatzen diegu, lur-lanari edo ganaderitza uzteagatik. Nahi dutena egin dezakete, beste lan batean ari dituzke ala nahi badute; kondizio bat bakarria jartzen diegu. beren



Udazkeneko usopasea bezalaxe...

2.—Aurrera biderako planetan sartzen diran gazte aukerak, kredituak jasotzen dituzte, dirua behar baitute baserri aundiagoa martxan jartzeko. Kredituok % 2 dute interes; beste % 7 edo 8 baiño merkeago inork dirurik ematen ez badu ere.

Orela gazteak 7 urteko plana egiten dute beren baserri ori azi, zabaldu eta martxan jartzeko. Zazpigarren urtean, ez dutela gehiago kreditu oien beharrik azaldu behar dute.

Asmo aukerak aurrera aterako badira, izugarriko diru pillak behar ditugu, baiña erabakia dago nondik sortu: laurden bat guk, Europako merkatu batuak, jarriko dugu eta, beste iru laurden, nazio bakoitzak. Badauzkagu ortarako 1.400 milloi dolar, lehenengo bost urte-tarako, eta nahikoa ditugu. Asteko behintzat bai.

3.—Nekazaritza uzten dion baserri-tarrak, industrian lan egiteko ofizioran bat ikasi ahal izango du, ikasten ari dan bitartean jornal bat emango baitaio.

Alere ez genduke nahi, nekazaritza ezin dute jende au guztia, iri aundietara ikastera eta lanera joaterik, eta orregatik, une berean nekazari alderdian, erri txikietan, industria jartzeko asmoak ditugu.

Nekazari aukerak ofizioa ikasi eta kalean lanean asi bitartean, behar duten diruaren erdia ere, guk jarriko dugu.

Ora or Europako asmoak. Zer derizkiozu? ametsak? beteko ote dituzte? Eta aiek martxa ori artzen dutenean, gu zertarako gelditzen gera?

Dena dela Europa or dago, alboan, auzoan. Eta auzoan zer egiten duten begiratu beharra dago, etxean zer egin pentsatzeko. European eragiña gero eta aundiagoa, nabarmenagoa izango da gure nekazaritza eta gure bizimodu guztian.

15.000 HEKTAREA SOJA

Amabost milla hektarea soja erein dira aurtan Españian, eta aurrerantzean, gero eta gehiago ereiteko asmoa da. SENPA delakoak 3,50 peztako prima ezarri du aurtan, alea biltzenda erako; orrela, nekazariari kiloko 14,50 iritxiko zaio; gaitia sortu ala gaitia saldua dauka, azia erosterakoan egiña duten kontrato bat dala bide.

Españian 1.200.000 tonelada behar omen lirake osatzeko eta ortarako 600 milla hektarea lur erein. Amabost millatik seireun millara badago alde galanta. Eskasi ori Españiako ez ezik mundu guztikoa da, ikusten denez, oraingoz behintzat.

Olioa, eta ganaduren pentsutarako proteinak ematen dituen beste landare bat eguzkilorea da. Orain 5-6 urte arte, ez zan bat ere ereiten Españian; baiña arrezkero urtetik urtera eremu zabalagoak artzen ari da. 300.000 hektarea erein ziran igaz, gehienak Andaluzian, baiña Castilla eta Leon aldean ere, sartzen asi da.

Eguzkilorearen olio, ordea, ez da aintan ondo saldu joan den urtean eta sobrateak gehitu egin dira. Au batipat Ipar-Ameriketatik ekarri dan soja primatu dalako gertatu da, eta orain, nekazaria zer egin ez dakielako; batetik, eguzkilorea ugari erein behar dela esaten baitaio, eta bestetik, kanpotik dakarten soja dalata, bere irabaziak murrizten ikusten ditu.

Aurtan ez dirudi, igaz baiño uzta aundiagoa izango danik, zenbait tokitan, ez baitzien udazkenean ereiteko girorik egin, eta beste batzutan, bada ez bada ere, ez dute aurreko urtean baiño lur gehiago erein.

Onak guretzat esan nahi du, pentsuak garesti segiko dutela, eta ez dela ikusten, nondik eta nola osa ditezkeen, pentsutarako behar ditugun proteinak.

Pentsua garesti eta eskasa izateko arriskuan gaudela.

HOLANDAN BEHARKO

100.000 kilo esne eman ditu behi bakar batek. Badakizue nazio askotan zehatzago izateagatik esnea litroka ez baiño kiloka neurtzen dutela. Ez dut uste, alere, alde aundia dagoenik litro esnetik kilo esnera.

Holan dan ehungarren behia iritxi da 100.000 kilo esne ematera: «Paula's Martha» izena du, delako behi eder orrek. Amabostgarren umaldian osatu du esne putzu ori. Behi onek 21 une egin ditu, sei aldiz bizikiak. Gehiena eman zuen umaldian 8.000 litro eman zituen, 10 urteko zalarik.

15 umaldi, 21 txahal, eta 100 milla kilo esne: a zer behia!!!

Zeiñek esan du esnebehiak berehala akitzen dirala eta bizi motza dutela?

NAFARRAK BERO

Nafarroako ganaduzaleak, sindikatuak deituta, bilera egin dute pentsukonpuestoa garestitu eta geres-

titu ari dalata zer egin ote ditekien ikusteko. 300 ba ganaduzale bildu omen ziran. Ondorengo egun batean gobernadorearengana joanak dira, billeran artu ziran erabakiak azaltzera. Batzarrean bero itzezin zala, esan gabe doa.

Ona emen zer ondoriotara iritxi ziran:

1.—Gobernuak esan dezala behin argi eta garbi aragia, arrautzak esnea eta abar emen sortzea komeni dan, ala nahiago duen, kanpotik ekartzen aritzea.

Ganaduzalearentzat diru emangarri izateko moduan, emen sortzea komeni bada, ministerio bakar batek, ots, nekazaritza erabaki dezala, lehenbait lehen, ganaderitza politikoa eta jokabidea.

2.—Aragia gordetzeko kamaretako giltza eta kanpotik noiz ekarri erabakitzea, gu ganaduzaleon esku egon dedilla.

3.—Esneari, behi aragiari eta ardikiari dagokionez, saltzeko prezioak igo ditezela, kostuak igo diran aña.

4.—Gaur sobre daukagun arrautza eta aragi guztia, primatu eta kanpora bial dedilla, eta pentsu konpuestoa, gora eta gora gelditzen ez dan arte, ken ditezela salneurrien topeak.

5.—Ganaduzaleok ateratzen ditugun jeneroen prezioek dabilzkiten gorakak eta beherakoak geldi ditezela behin betikoz.

6.—Ganaduzaleen alde jokatzeko ez dala beraien onerako bakarrik, baizik eta, jale guztiei komeni zaien gauza dala.

Ora nafarren eskabideak. Badira gehiago ere. Beste zenbait lekutan ere egin dituzte olamoduzkoak.

Izan ere pentsuaren eskasi eta garestitze au batetik, saltzeko prezioei lehengoan eustea bestetik, eta soka orrek atzetik daukan korapillo guztiak... behi, ardi, zeri eta oillotara jarrita dauden guztiak, zein baiño zein okerrago, zein baiño zein balantza aundiagoan, arrisku latzean eta ipurdizgora joan beharrean utzi ditu.

BEHORRAK ULTZAMAN

Nafarroan, Ultzamako ballean, Iruñetik 20en bat kilometrotara, ingles arrazako odol garbiko moxalak eta behokak ipiñi dituzte.

Behortegi ori «sociedad para el fomento de la cria caballar en España» delako elkartearena da, eta kooperatiba ortako edozein soziok eraman ditzake bere behorrek edo moxalak an azitzera.

Asteko 15 moxal eta 9 behoka jarri dituzte, eta beste 60 behor eta zaldi batzuk Oartzungo behortegitik eraman.

Giro ederra omen da Ultzamako odol garbiko moxal oientzat; lehendabiziko bi illabetetan denak irabazi dute.

Au duk martxa au Ultzamarena! Bertako baserri-tarrak 18-20 esnebehiakin ezin bizirik eta zaldi inglesak primeran bizi. Zer ikusteko ote gaude?



100.160 kilo esne eman dituen behia